

## Kultura

Senegalgo PPS The Ghost Writah hip hop abeslariaren diskoa editatu du Durangoko Beat Salad Records diskoetxeak > 11



**GAZTERIA**  
Enara  
Lauzirika



**FEMINISMOA**  
Maider  
Muro



**KIROLA**  
Agurtzane  
Elorriaga



**ENPLEGUA  
EKONOMIA**  
Guillermo  
Oarbeaskoa

## Eta zuk zer eskatuko zenieke Durangaldeko udal ordezkariari?

Hauteskunde bezperan, Durangaldeko udal ordezkariari zer eskatuko lieketen galdetu die ANBOTOK eskualdean hainbat esparrutan dabiltzan zortzi laguni > 4-5



**INGURUMENA**  
Ander  
Areitioaurtena



**KULTURA**  
Marisa  
Barrena



**EUSKARA**  
Maite  
Berriozabal



**PARTAIDETZA**  
Kimetz  
Munitxa

## Durangoko Kulturalak Bigarren B Mailarako igoera fasea hasiko du domekan, Tabiran

Durangoko Kulturalak Coruñaiko Deportivo B izango du aurkari playoffetako lehenengo kanporaketan. Domekan, joaneko partidua jokatuko dute Tabira futbol zelaian. Durangoko taldea sasoi betean heldu da igoera fasera, ligako azken bost partiduak segidan irabazi ostean. Imanol de la Sota entrenatzailearen esanetan, kanporaketa gaitza izango da: "Deportivo talde gaztea da, oso dinamikoa. Gauzak zail jarriko dizkigu". Horregatik, zaleen laguntza eskatu du. > 15



KA

**hitz** artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com  
liburudenda

**Ahoztar Zelaieta**

**'La casta vasca' aurkezten:**  
Eguna: Maiatzak 28, osteguna  
Ordua: 19:00  
Lekua: Hitz liburu denda

**CRIS ACADEMIA**

Musiko Altuna, 11 behea  
48200 Durango  
Tel.: 606 368 929

**KET, PET eta FIRST ikastaroak**

Goizez ordutegia adosteko aukera dago.  
Ingeles maila guztiak eskaintzen ditugu.

**Uztailean ikastaro trinkoak eskaintzen ditugu**

### Durango > 2

Erreskateetan eraginkorrago izan gura dute suhiltzaileek

### Durango > 3

Nepaleko kaltetuen aldeko kontzertua izango da domekan

### Berriz > 8

Berrizko Elikagai Bankuari laguntzeko kontzertua, zapatuan

### Abadiño > 9

Laubideta berrurbanizatze proiektua aurkeztu du udalak



## Herririk herri

# Erreskateetan eraginkorrago izan gura dute suhiltzaileek

Autoetako material berriak mozteko ikastaroa egin dute suhiltzaileek, IK4-Azterlanegaz eta Gestampegaz

**DURANGO M. Onaindia** Duela urtebete sortu zen IK4-Azterlan eta Iurretako suhiltzaileen arteko hartu-eman, konpostaje esperientziaren bidez, eta suhiltzaileen lana erraztuko duen pauso bat eman dute elkarlan horri esker. Auto istripuetan, pertsonak metalen artean harrapatuta geratzen direnean, suhiltzaileek izaten dute erreskateatzeko ardura. Azken urteetan, auto ekoizleak metal berriak erabiltzen hasi dira, erresistentzia ultra altukoak, eta horiek hobeto mozten ikasteko beharrezana ikusi dute Aldundiko suhiltzaileek. Beraz, erreskateetan eraginkorrago izan gura dute. Izan ere, auto istripu baten os-

tean denborak eragin itzela du istripua izan dutenengan, eta, ondorioz, erreskatea ahalik eta arinen egiteak garrantzi berezia hartzen du. Horrela, astelehenean saio teoriko-praktikoa jaso zuten IK-Azterlanen eta Gestamp enpresaren eskutik.



**“Egungo tresneria material berriei aurre egiteko kapaz da”**

JON RENOBALES

### 25 partaide

Suhiltzaileez gainera, DYako eta Gurutze Gorriko kideek ere jaso zituzten aholkuak; 25 bat lagun egon ziren jardunal-



Suhiltzaileak, IK4-Azterlan zentro teknologikoaren kanpoaldean, praktikak egiten.

dian. Lehenengo informazio teorikoa jaso zuten, Julian Izaga IK4-Azterlaneko Berrikuntza eta Teknologia zuzendariaren eta Gestampeko Serafin Isasiren ahotik. Gero, kalera irten ziren, eta materialen ebaketa probak egin zituzten; hasteko, piezak banaka moztu zituzten,

eta, ondoren, auto zahar bat hartu zuten entseguak egiteko.

### Tresna bateragarriak

Jon Renobales bakiotarra da saioan parte hartu zuen suhiltzaileetako bat, eta interesgarria iruditu zitzaioela azaldu zuen. Bere arabera, autoetako

material berriak eta moztetarako tresneria berriak parean doazela ikusi zuten, bateragarriak direla: “Gelan irakatsi digutenagaz apur bat kezkatuta nongoen, baina, praktikak egin ostean, lasaiago nago. Egungo tresneria material berriei aurre egiteko kapaz da”.

# Amerikako jatorrizko hizkuntzak aztergai

‘Beltzean mintzo’ dokumentala eskainiko dute



Dokumentalean parte hartu duten protagonistetako bat.

### DURANGO M.O.

Kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aimara, maputxe eta maya yukatek hizkuntza komunitetako hemezortzi amerikar Euskal Herrian egon ziren duela urte bi, Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak izeneko masterra egiten. Durangaldera ere etorri ziren, euren esperientzien berri emateko eta euskararen egoera ezagutzeko asmoz. Esaterako, Zabalarra ikastetxean, Kurutziaga ikastolan eta Durangoko Udalean egon ziren. Bada, bisitari haietako hamalau dokumental bat landu du Garabide elkarteak, eta eguaztenean eskainiko dute Plateruenean, 19:00etatik aurrera. *Beltzean mintzo* deitzen da ikus-entzunezkoa, grabazioaren

planoetan erabilitako atzealdeko tela beltzari erreferentzia eginez. 45 minutuko iraupena dauka, eta trailerra [www.garabide.eus](http://www.garabide.eus) webgunean ikusi ahal da.

Amerikarrek, euren esperientzia kontatzeaz aparte, euskaldunok zelan ikusten gaituzten azaltzen dute dokumentalean. Andoni Barreña Garabideko kideak adierazi du Euskal Herrian kultura eta nortasuna berrindartzeko egindako lana “oso estimu altuan” dutela dokumentaleko protagonistek. “Gu orain 50 urte lez daude eurak: baztertuta”.

Garabidek eta udalak lan-kidetza hitzarmena dute duela hiru urtetik, eta, adibidez, nasa herrian formazio planak finantzatu izan dituzte horrela.

# San Fausto urbanizatzeko obraren lizitazioa hasi du udalak

### DURANGO M.O.

San Fausto auzoa berriro urbanizatzeko obraren lizitazio prozesuari hasiera eman dio Durangoko Udalak. Zerbitzu sare guztiak berrikotuko dituzte, eta kaleak irisgarritasun baldintzen arabera antolatuko dituzte.

Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, obrak bi milioi euroko aurrekontua edukiko du. Hamalau hilabeteko epea emango du udalak proiektua amaitzeko.

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko maiatzaren 22a,  
13. urtea - 590. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia,  
Itxaso Martinez de Arenaza  
Yarza, Amaia Huarte Basabe.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña,  
Martxel Zubia Arrinda,  
Eneko Azurmendi Barrena.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egildazu.

### Laguntzaileak:



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





# Vanessa Goikoetxea soprano durangarraren ahots solidarioa

Nepaleko kaltetuen aldeko kontzertua eskainiko dute domekan, 19:00etan

**DURANGO** M. Onaindia Andra Maria basilikak Nepaleko lurrikaretan kaltetutako en aldeko kontzertua hartuko du domekan, 19:00etan. Vanessa Goikoetxea soprano durangarraren ahots solidarioa entzun ahal izango da bertan. Kontzertua egiteko ideia Goikoetxeari berari otu zitzaion, eta Xabier Arana organo-jotzailegatzat berba egin zuen. Gero, Jose Agustin

Maizengana jo zuten, Andra Mariko parrokoarengana.

Nepaleko kaltetuei laguntzeko, bakoitzak ahal duena emateko gonbidapena egin du Goikoetxeak: "Jendeak jakin dezala edozein ekarpen handia dela eurentzat". Kontzertuan eten bat egingo dute, eta orduan pasako dituzte poltsak dirua batzeko. Jasotako diru guztia Caritasi emango diote.

Xabier Aranak azaldu du errepertorioa erlijiosoa izango dela, eta Bach eta Mozart autoreen piezak joko dituztela.

Nazioartean lanean dabilen sopranoa da Goikoetxea. Madrilen ikasi, eta masterra Municen (Alemania) egin zuen. AEBetan, Japonian, Alemanian eta Italian ibili izan da, eta Madrilen egon berri da, Zarzuela antzokian.

# Izaro Etxebarriak irabazi du argazki lehiaketa

200 euroko balioa duen txartela jaso du Etxebarriak

**MAÑARIA** M.O.

Saibi mendiaren inguruko argazki batez, Mañariko argazki lehiaketa irabazi du Izaro Etxebarriak. 200 euroko balioa duen txartela eman diote sariatzat. Bestalde, 50 euroko beste bi accedit eskaini ditu udalak. Iñaki Martinezek jaso du bat, *Mañariko sakonean* lanagaz, eta Ibon Muruak bestea, *Naturaren begirada* argazkiagaz.

Mañariko natur eremuren bat islatu behar zuten egileek.

**Bihar, abesbatzak**

Bestalde, Udaberriko Kontzertuak jaialdia izango dute bihar, Andra Mari elizan, 20:00etatik aurrera. Bizkaiko hiru abesbatza izango dira bertan: Kirikiño (Mañaria), Garaizarko Matso-riak (Bilbo) eta Sociedad Coral (Urduña).



Ezkerretik eskumara, Maiz, Goikoetxea eta Arana.

# Erlaxazio saioak ekainean, 16 urtetik gorakoentzat

**IZURTZA** Joseba Derteano Ekain hasieran, erlaxazio saioak eskainiko dituzte jubilatuen lokalean. 16 urtetik gorako edozeini bideratuta daude. Saioak ekainaren 2an, 4an, 9an eta 11n izango dira, 15:00etatik 16:00etara, eta Josune Unda kontsultategiko erizainak eskainiko ditu. Gorputza erlaxa-

tzeko hainbat modu irakatsiko ditu saio horietan, arnasa, bisualizazioa eta antzeko teknikak landuz.

**Egun-pasa Iruñera**

Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak, ostera, Iruñera egun-pasa antolatu du ekainaren 6an. Hiria kanpoaldea autobusez bisitatuko dute (harresia, adibidez), eta, ondoren, Alde Zaharrera joango dira, eta bertan bazkalduko dute. Izen-ematea maiatzaren 30a baino lehen egin beharko da udaletxean.

# ATE IREKIAK

Maiatzaren 23an 11:00etan

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

---

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

---

Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91





#M24durangaldea

# Hauteskunde egunean protagonismoa herritarrena izango da, eta erabakia ere bai

Udal politikan zer beharizan ikusten duten galdetu die ANBOTOk Durangaldeko zortzi herritarri

## DURANGALDEA ANBOTO

Kanpainaurre luzearen eta aste biko kanpaina biziaren ostean, heltzear dago hauteskunde eguna. Domekan, udalen, Batzar Nagusien eta Amankomunazioaren osaketa zehaztuko da, herritarrek alderdiei emandako botoen arabera. 09:00etan zabalduko dituzte mahaiak, eta 20:00ak arte egongo da bozkatzeko aukera.

Boto horiek lortzeko asmoz, alderdiak ekitaldirik ekitaldi ibili dira, propaganda bana-

tzen, batzarrak egiten... Baina hautagai politikoek kanpainen hartzen duten erreferentziaren gaitetik, herritarrek dira hauteskundeetako protagonistak. Eurena da boto papera, eurena da erabakia, eta eurena esku dago mapa politiko berria zehaztea.

zan ikusten dute? Zer norabide hartu behar dute politika zehazteko? Galdera horiek egin dizkie

Durangaldeko erakundeen lanak norantz jo beharko lukeen aztertu dute erreportaje honetan

ANBOTOk Durangaldean herrigintzan eta erakundeetan lanean dabilten zortzi herritarri. Sektoreka banatuta, Durangaldeko erakundeen lanak norantz jo beharko lukeen aztertu dute erreportaje honetan.

## Partaidetzatik gazteriara

Kimetz Munitxak partaidetzaz berba egin du, Agurtzane Elorriagak kirolaz, Maite Berriozabalek euskaraz, Ander Areitioaurtenak ingurumenaz eta jasangarritasunaz, Marisa Barrenak kulturaz, Guillermo Oarbeaskoak ekonomiaz, Maider Murok feminismoaz eta Enara Lauzirikak gazte politikaz.

Mahaiak 09:00etan zabalduko dituzte, eta 20:00ak arte egongo da bozkatzeko aukera

## Herritarrei galdezka

Eta zer diote herritarrek? Zer eskatzen diete udalei? Zer beharri-

## PARTAIDETZA

### “Parte hartzetik, parte izatera”

Otxandion, Herri-ola planean, partaidetza eredu sakona duzue. Udalaren funtzionamendua hankaz gora ipintzea dakar, behetik gora. Udalak ez du esaten gauza zehatz batean parte hartzeko. Alderantziz da: herritarrek dauzkaten beharizan eta kezkek lantaldeka zehaztu dira, zortzi urteko prozesuan. Talde zabalak dira, eta eurek gura dutenean batu ahal dira. Gero, Herri-ola Batzordean, on-



**Kimetz Munitxa**  
Garapen teknikaria Otxandion. Urak Bide taldea ABADIÑO

dorioak bateratzen dira udalagaz batera. Erabaki horiek, udalaren gaitetik dagoen Herritarren Kontseilura eramaten dira. Norabide estrategikoa markatu, eta 30 urterako proiektua da, bizi kalitatea helburu duena.

### Beraz, partaidetzan sakondu behar da?

Parte hartzetik, parte izatera pasatu behar dugu, eta mantso egin behar da lan. Herritarrek trankil egon behar dute, ez lau urterik behingo borroka politikoan. Edozelan ere, daukagun gizarteagaz, parte-hartze eredu itxiak ere baloratu behar dira. Azkenean, eskema aldaketa bat da. Baina motibazioa galtzea ere eragin dezakete.

## EUSKARA

### “Erabaki sendoak behar dira”

Udalek zer jarrera izan beharko lukete euskararen biziberritzean? Euskara ezin da eztabaizgai izan. Euskaldunon hizkuntza da, herri nor-tasuna ematen diguna eta egoera gutxiagotuan dagoena. Horregatik, aldebakartasunez hartu behar dira euskararen aldeko erabaki sendo eta garbiak. Euskarak lehentasunezko hizkuntza izan behar du udalarentzat. Udal administrazioan euskarak izan



**Maite Berriozabal**  
Berbaro elkarteko zuzendaria. BERRIZ

behar du lan hizkuntza, eta euskaraz izan behar da herritarrekiko harremana. Egun, euskaldunon hizkuntza eskubi-deak ez dira bermatzen, eta hori onartezina da.

### Zein izan beharko litza-teke lehentasuna?

Udal agintari eta langileak euskaraz jardun daitezten beharrezko erabakiak hartzea. Euskaraz bizitzeko ezinbestekoa da arlo guztietan euskaraz jardutea ahalbide-tzea eta hori kirolean, aisialdian, merkatarit-zan, lan munduan... sustatzea. Udalak eragin dezake horretan: agintari-eredu izan behar dute, ordenantzak bete-razi behar dituzte, diru-laguntzak bideratu...

## KULTURA

### “Kontsumoa beharrean, sormena erdigunean”

Kultur arloan, datozen lau urteetako lehentasunak zeintzuk izan beharko lirake? Herri eragileek sortu-tako ekimenak garatu beharko lirake. Kultura kontsumitzaile izatetik, ekintzaile eta sortzaile izatera pasa behar dugu herritarrok. Horretarako, kultura kudeatze-ko eredu berriak landu beharko genituzke: sortzaileei arreta eta lagun-



**Marisa Barrena**  
Kulturazale eta eragilea. DURANGO

tza eskaini, euskarazko sorkuntzari lehentasuna eman, eta ideia berritzaileak bultzatu. Ondarea zaintzea, ikertzea eta eza-gutaraztea ere beharrezkoa da, eta baita teknologia berriak baliatzea ere.

### Zelan bultzatu daiteke parte-hartzea?

Ez dauden herrietan, Kultura Kontseiluak sortuz, esaterako. Kultur ekintzak koordinatuz, eta diziplina ezberdinak bultzatuz. Kultura tresna garrantzitsua da gizarte-egituratzeko eta identitate osatzeko. Askotariko diziplinak bultzatzeko, arlo kulturala kudeatuko duten zinegotziek alor horretan arituak izan beharko lukete.

## INGURUMENA

### “Inplikazioa ezinbestekoa izango da”

Zer pauso aurreikusten duzu birziklapenean eta energian? Hurrengo agintaldian etxeko hondakinen kudeaketan aurrerapausoak eman, eta birziklapen tasak igoko dira. Baina sistema berriek ondo funtzionatu dezaten, herritarren inplikazioa ezinbestekoa da, eta sentsibilizazio plan indartsuak bultzatu beharko dira. Energiari dagokionez, eskualdean hainbat herritarrek eta enpresak



**Ander Areitioaurtena**  
Ingurumen teknikaria IK4-Azterlanen DURANGO

geotermia energia berri-erregeneratzailearen aldeko apustua egin dute, eta lortutako emaitzak onak izaten dabilta. Lehen inbertsioa garestiagoa izan arren, teknologia garbiagoa da, eta eraikin publikoetan erabilera zabalagoa izan dezake.

### Zer egin daiteke airearen kalitatea eta mugikortasuna hobetzeko?

Urteetako hobekuntza nabaria ahaztu barik, badaude hainbat gune sentikor. Aire zabalean egiten diren erreketak saihestea erronka polita izango da. Mugikortasunean, trafikoa lasaitu eta oinezkoiei eta bizikletadunei lehentasuna eman behar zaie.



#M24durangaldea



Domekan, hauteskudeen jarraipen berezia egingo du ANBOTOK [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean eta sare sozialetan, **#M24durangaldea** traolagaz.

## ENPLEGUA ETA EKONOMIA

### “Arreta eta inplikazioa behar dira”

Zer eskatuko zenieke politikariei?

Tokiko merkataritza enpresa txikiek osatzen dute, askotan pertsona bakarrek. Ekonomia politikek enpresa horiek eta sektorearen errealitatea kontuan hartu behar dituzte. Tokiko merkataritza bultzatu behar dute, kontsumo formatuak lehenetsita. Enpleguari dagokionez, kolektiboaren premiei arreta jarriko dion kontrataziorako laguntza plan bat behar



**Guillermo Oarbeaskoa**  
Dendak Bai elkarteak presidentea  
DURANGO

da, eta hitzarmenen negoziazioa desblokeatzea.

Zer indartu behar da? Gestioetarako arintasun handiagoa gura genuke, eta baita erakundeek eta elkarteek helburu bakarragaz lan egitea ere, hiriak dinamizatu eta tokiko aisialdia sustatuz. Merkataritza gune irekiaren funtzionamendua nahi dugu estrategia eta lan ildoak adosteko; tokiko merkataritzaren alde diharduten erakundeek lukete ordezkaritza.

Sektoreak ez du sasoirik onena bizi. Zer behar du hori gainditzeko? Arreta, hurbiltasuna eta inplikazioa. Erakundeen laguntza oinarrizkoa da.

## KIROLA

### “Emakumeen kirola eta harrobia”

Udalek zer egin dezakete kirola indartzeko?

Harrobiari edo oinarrizko kirolari begira, horren inguruko lege edo araudi bat izan beharko lukete; edo diru kopuru bat beren-beregi horretarako gorde beharko lukete. Oinarrizko kirola sustatzea asko kostatzen da, eta babes gutxi dago.

Zer beste alderditan eragin dezakete? Emakumeen kirolari dagokionez, beste hainbes-



**Agurtzane Elorriaga**  
Bizkaia-Durango txirrindularitza taldeko zuzendaria  
DURANGO

te egin beharko lukete. Batez ere, elite mailan ikusten da nabarmen gizonen eta emakumeen taldeek mugitzen duten diru kopuruan dagoen aldea. Diskriminazio positiboa egin beharko lukete. Gainera, udalentsat lan egiten eta diru kantitate handia mugitzen duten enpresak behartuta egon beharko lirateke zenbateko bat oinarrizko kirolean zein emakumezkoen inbertitzera. Errusian enpresak kirolean inbertitzera behartzen dituzte. Oro har, udalek herriz herri dauden elite taldeak mantentzeko ahalegina egin behar dute; balio positiboak sustatu eta herriaren ize-na zabalten dute.

## FEMINISMOA

### “Ez dago proiektu integralik”

Zer botatzen duzu faltan udalen partetik?

Udal mailan, udal politika feminista botatzen dugu faltan, hain zuzen ere. Ekintza solteak egiten dira, eta hainbat gauza hobetu badira ere, ez dago proiektu integralik. Badakit ezin dela bat-batean guztia egin, baina horretarako daude plan estrategikoak, adibidez.

**Gazteak heztea garrantzitsua da, ezta?**  
Belaunaldi berriak hez-



**Maider Muro**  
Bilgune Feministako kidea  
DURANGO

teaz gainera, jende heldua ere hezi behar dugu. Ezin dugu dena ikastetxeen esku utzi, jendarte guztiak duelako ardurara. Bestetik, ikastetxeak babestu eta animatu egin behar dira lan horretarako, eta ikasturte guztian, ez soilik egun seinalatuetan. Izan ere, egun seinalatuetan oinarritzen den politika ez da eraldatzailea.

**Eta udalari zer tratu eskatzen diozu horren aurrean?**

Udalak mugimenduei begira egon behar du; kasu honetan, emakumeei eta mugimendu feministari begira. Hartu-eman horrek etenbakoa izan behar du.

## GAZTERIA

### “Erabakitzeke guneak behar ditugu”

Zer egin behar dute udalek gazteen beharrezko guneak asetzeko?

Lehenengo eta behin, galdetu. Udalek gazteen iritzia zein den galdetzea beharrezkoa da; izan ere, galdetuz gero bakarrik jakingo dute gazteok zer behar dugun eta zer nahi dugun. Hartu-emanak zuzena izan behar du, eta horretarako guneak sortu behar dira.

**Gazteek espazioak behar dituzte?**



**Enara Lauzirika**  
Zornotzako Gazteak taldeko kidea  
ZORNOTZA

Bai, noski. Erabakitzeke guneak behar ditugu, autonomiaz jarduteko eta elkartzeko espazioak. Udalek gune horiek sortzeko erraztasuna eman behar dutela uste dut; izan ere, askotan oztopoak bakarrik topatzen ditugu.

**Gazteen emantzipazioari zelan lagundu diezairoke udal batek?**

Etxebizitza arloa gaizki dagoela ikusita, gazteok gero eta zailtasun handiagoak ditugu gurasoen etxetik irten, eta emantzipatzeko. Egoera horren aurrean, oso lagun-garria izango litzateke udalen partetik gazteontzako alokairuko etxebizitzak sustatzea.





#M24durangaldea

## Eredu aldaketa gauzatzeko botoa eskatu du EH Bilduk

**> EH BILDU** Joseba Derteano Martitzenean egindako ekitaldian, "EAJ oposiziora" bidaltzeko eta "herritarrak alkatetzara" heltzeko sasoia dela aldarrikatu zuen Dani Maeztuk, Durangoko EH Bilduren zerrendaburuak. Tren geltokiaren inguruko lurretarako zer asmo duten ere jakinarazi dute asteon. "Berdegune" baten beharra dagoela

adierazi zuen Jon Andoni de Amo hautagaiak, erredu "osantsuago eta jasangarriago" baten alde. Bertan, besteak beste, gizarte etxe bat eta ortu urbanoak egingo lituzkete. Proposamenak eztabaidatzeko herritarrekin prozesu parte-hartzaile bat abiatu gura dute.

Elorrioko EH Bilduk herritarren 96 galdera jaso ditu Hartu



Martitzenean, Durangon egindako ekitaldia.

Hitza jardunaldiko deialdiari erantzunez. Horietako 50 erantzun zituen martitzenean, Arriolan egindako ekitaldian. Gainerakoak bere webgunean erantzungo ditu koalizioak.

Abadiñoko EH Bilduk esan du "egia zutabe izango duen eta programa beteko duen lan taldea" osatuko duela, "produktu ustelak freskotzat" saltzen dituztenen aurrean.

**Atxondon "kalumnien" aurka** Etxez etxe banatutako hauteskunde programan Atxondoko EAJk iradokitzen du EH Bilduko David Cobos eta Onintze Oleaga hautagaiak eta Rosa Elizburu alkateak alokairuko etxebizitzaren banaketa prozesuan prebarikazioa egin dutela. Akusazio "faltsuak eta kalumniak" bariku gauerdia baino lehen zuzentzeko exijitu dute hirurek. Etxez etxeko zuzenketa gura dute. Bestela, epaitegira jo, eta kereila bat jarriko dute.

## Herriaren Eskubidearen eskuorri banaketa Ezkurdi inguruan

**> PODEMOS** Jone Guenetxea Hauteskunde kanpainaren azken txanpan sartuta, Durangoko Herriaren Eskubidea alderdiak eskuorriak banatuko ditu bihar, Ezkurdin. Julian Ríos alderdiaren zerrendaburuak azaldu duenez, "hauteskunde programan jasotako proposamenak ezagutarazten jarraituko dugu, eta, horretarako, kanpaina osoan egin dugun moduan, kalean izango gara, Ezkurdin". Herriaren Eskubidea alderdiko kideentzat hauteskundeetan parte hartzen duten lehenengo aldia da: "Gehienok mugimendu sozialetatik gatoz, eta hauteskunde kanpaina batean parte hartzea berria da guretzat".

**AITOR AURREKOETXEA**

EHUko irakaslea



### Hauteskundeak

Hemen ditugu berriro hauteskundeak. Hego Euskal Herrian, oraingoan, udal hauteskundeak eta batzar nagusietakoak izango dira, eta Nafarroan, berriz, foru erkidegokoak.

Hori dela-eta, paradoxa demokratiko pare bat komentatzea gustatuko litzaidake. Alde batetik, eta kontraesana dirudien arren, hauteskunde garaia ez dira une onenak debate zintzoak egin ahal izateko. Halaxe da, alderdi guztiak arduratuta daude beraien arerioak higitu nahian, eta ez hainbeste beraien egitasmoak azaltzen. Toki guztietan gertatzen da gauza bera, ez Espainian bakarrik; hemen ere EAJren eta EH Bilduren artean gauza bera gertatzen da, diskurtso ez-zilegiak plazaratzeraino: EAJren ustelkeria maila Valentziako PPren ustelkeriarekin parekatuz, eta besteak Araban atez ate beldurra sortarazten, edota fiskalitatearen inguruko Bilduren mutur-tasuna aipatzen.

Bi diskurtso horiek zintzoak ez izateaz gain, faltsuak ere badira. Beraz, paradoxa demokratiko baten aurrean gaude, hau da, hauteskunde garaian diskurtso nobleak lehiari aritzetik urrun gaudela esan genezake.

Azken finean, kanpainak aitzakia bihurtzen dira politikarien artean eztabaida leialak ez izateko, eta guk, herritarrok, politikariei eskatu beharko genieke ez bakarrik gai nagusietan adostasunak bilatzeko, baizik eta, hau da, garrantzitsuena, beraien desadostasunak hobeto kudeatzeko, hori baita gizarte demokratiko baten neurgailurik egokiena.

## Irigoras: "EH Bilduk atez atekoa inposatu gura du"

**> EAJ** M.O. / I.E.

Iñigo Urkullu lehendakaria eta Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarreko presidentea EAJk Durangon egindako ekitaldian izan ziren. Aitziber Irigoras Durangoko zerrendaburu jeltzalearen arabera, EH Bilduk atez ateko zabor bilketa sistema

"inposatu" gura du: "EAJri botoa ematea da inposaketa hori geratzeko berme bakarra".

### Abadiñoko EAJ

Abadiñoko jeltzaleen arabera, "EAJ funtsezkoa izan da lau urteotan herrian egindako hainbat proiektu aurrera ateratzeko".



Aitziber Irigoras, Unai Rementería eta Andoni Ortuzar, Durangoko mitinean.

## Riosek etxez etxe aurkeztu du programa



Ríos, zerrendaburu sozialista, herritar bati arrosa bat ematen.

**> PSE-EE** J.G.

Durangoko PSE-EE bere hauteskunde programa atez ate aurkezten ibili da egun hauetan. Pilar Ríos zerrendaburuak azaldu duenez, "herritarrekin zuzenean berba egiten gabiltza. Jendea oso hurbilekoa izaten

dabil, eta animo asko ematen digu. Askok euren kezak eta iradokizunak helarazten dizkigute".

Era berean, herritarrei Durangoko sozialisten hauteskunde programa eta arrosa bat eman diete.

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**A. Urreta** podólogo

**Adinara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea  
48200 - DURANGO

P.B. 21406



# Lentzeria denda berria, Durangon

Neurri handietan espezializatutako denda zabaldu zuten atzo, Durangoko Ermodo, 27an

## *“Neurri handiko arropa erabilia ere polit egon zaitezke”*

Lentzeria denda berria zabaldu du Maria Pilar Gallastegik Durangon. Atzo bertan ireki zituen ateak Ermodo kalean. Neurri handietan espezialistak dira adin guztietarako, bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

**Zer neurritako barruko arropa saltzen duzue?**

Neurri guztietako arropa dugu, baita handiak ere. Kopa arruntez gainera, C, B eta E ditugu, eta handiagoak ere eskatu ditzakegu dendan ez baditugu.

**Beharizan bereziak dituztenei zuzenduta, zelako eskaintza duzue?**

Esate baterako, emakume nagusientzat, batez ere, uztairik bako bularretakoak ditugu. Era berean, ama izango direnentzat edo izan direnentzat ere barruko arropa berezia dugu.

**Erreduktoreak ere badituzue?**

Bai, erreduktoreak eta fajak ere baditugu.

**Barruko arropa berezi hau garestia al da?**

Poltsiko guztietara egokitzen diren prezioak ditugu.

**Bainurako arropetan, neurri handikoa behar dutenek aniztasun gutxi izaten dute. Zuen kasuan diseinu eder eta koloretsuen aldeko apustua egin duzue.**

Neurri handietan diseinua eta moda ez da zertan alde batera utzi. Ez da zertan beti beltza erabili. Bikini eta bainujantziak ditugu, modernoak zein klasikoagoak. Baina, beti ere, kalitatezko bainujantziak dira, estalkiagaz eta ondo josita.

**Neurri handiko arropa behar dutenek zailtasunak izaten dituzte gustuko arropa aurkitzeko?**

Bai; gehienetan, neurri handiko barruko arropari dagokionez, oso aukera gutxi izaten da. Azpimarratu gura duguna da neurri handia izan dezakezula, baina polit egon zaitezkeela.


**Bularretakoa aukeratzea ez da lan erraza, edozein neurri izanda ere.**

Bularretako baten bila datorrenari neurria galdetzen diogu, eta sarritan ez du jakiten zein den. Horregatik, guk aholku guztiak ematen dizkiogu behar duen neurria aukeratzeko, handia zein txikia. Izan ere, denda berria den arren arlo honetan esperientzia handia dugu.



*Magdalena Lenceria*

Ermodo, 27  
Magdalena - Durango  
Tel.: 669 366 873





# Berrizko Elikagai Bankuari laguntzeko kontzertua, bihar

Bertsolariak, Froufe, Usue Martinez eta Bouba izango dira taula gainean



Iazko elkartasun kontzertuan Berrizko hainbat musikarik parte hartu zuten.

**BERRIZ** Amaia Ugalde Berrizko Kultur Etxean kontzertua eskainiko dute herriko elikagai bankuaren alde, bihar. Jaialdian, Berrizko bertso eskolako kideek, Joshua Froufe eta Usue Martinez bakarlariek eta Senegalgo doinuak lantzen dituen Boubak parte hartuko dute. Kontzertura sartzeko elikagairen bat eraman beharko da: esnea, barazkiak kontserban eta olioia eramateko eskatu dute.

Kontzertua 20:00etan hasiko da, Berrizko Kultur Etxean. Berrizko Osasun, Ongizate, Kooperazio eta Inmigrazio Kontseiluak antolatu du jaialdia. Iaz

Sarrera janariagaz ordainduko da: esnea, barazkiak kontserban eta olioia eramateko eskatu dute

egin zuten lehenengoz Elikagai Bankuari laguntzeko kontzertua, eta, orduan ere, Berrizko musikariek eta Berrizegaz harremana duten musikariek parte hartu zuten.

**Kulturarteko jaia, ekainean** Udal kontseilua kulturarteko jaia antolatzen ere badabil. Aurtun, ekainaren 14an izango da, eta astelehenean, maiatzak 25, finkatuko dute egitaraua.

## Berrizen, euskara bultzatu nahi dute kirol ekintzetan

Erreferente diren taldeak sarituko dituzte

**BERRIZ** Martxel Zubia Azken hilabete hauetan, euskararen inguruko ikerketak egin dituzte herrian. Hiruhileko honetan, helduen ikastaroen %14 gaztelaniaz izan dira, %38 elebidunak, eta gazteenei zuzendutakoak euskara hutsean.

Bestalde, eskola kirolean ere euskara bultzatzea da Berrizko Udalaren helburua. Horregatik, udalak eta Berrioiz guraso elkarteak haur eta gazteen aisialdian euskara erabiltzea sustatu nahi dute. Esate baterako, entre-

namenduetan behaketa bat egin ondoren, hainbat helburu jarri dituzte: eskola kiroleko entrenamenduak zein hizkuntzatan egiten diren ezagutzera, entrenamendu horietan euskararen ahozko erabilpena bultzatzea eta hori bultzatzen duten taldeen erreferentzia zabaltzea

Gainera, institutuko guraso elkarteak eta zuzendaritzak galdeketa bat egin dute, eta, %50ak erantzun ostean, bostek izan ezik, denek nahi dute umeen entrenamenduak euskaraz izatea.

## Herriko ondare historikoa batu dute bideoan

**BERRIZ** A.U.

Institutuko DBHko lehenengo mailako ikasleak Berrizko ondare historikoa aztertzen ibili dira, eta, dokumentazio lana egin ostean, ondare hori ezagutarazteko bideoak sortu dituzte. Berrizko Udalak lan horiek CD batean bildu ditu, eta CD horiek Berriz bisitatzera datozenei eta herritar berriei banatu dizkiete.

Ikasleek, proiektuagaz herriko ondarea ezagutzeaz gain, herriko natura ere aztertu dute, eta bideoa editatzen ikasi. Lana Youtuben dago ikusgai.

## Plan Orokorren aurkezpena egingo dute, maiatzaren 27an

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Udaleko apirilko ohiko bilkuran onartu zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurkezpena egingo dute dokumentu hori osatzen ibili diren teknikariek, eguaztenean. 18:00etan aurkeztuko dute, udaletxean.

Bestalde, udal arkitektoagaz zein txostena osatu duten teknikariek hitzordua ipinita, Plan Orokorren inguruko zalantzak argitzeko aukera ere eskainiko diete horrela gura duten zaldibartarrei. 946 827 016 zenbakira deituta ipini daiteke teknikariek hitzordua.

Bi hilabeteko epea dago dokumentu horri alegazioak aurkezteko, eta, beraz, uztaile amaierara arte egongo da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ikusgai udaletzeko sarreran. Uztailearen 30era arte, astelehenean barikura, 08:30etik 15:00etara egongo da dokumentua udaletxean eskura, eta Zaldibarko Udalaren [www.zaldibar.org](http://www.zaldibar.org) webgunean ere ikusi daiteke.

## Tejeran aisialdi gune berria egiten hasi dira

**ZORNOTZA** J. Derteano

Tejera auzoan, Zubipuntera joateko biribilgunearen ondoan, aisialdira bideratutako gune berria egiten hasi ziren eguaztenean. Biarritz industriaguneko partzelak berrantolatu ditu udalak, eta lehen industriagunearenak ziren 2.200 metro karratu berdegune bat egiteko erabiliko dituzte.

Lehenengo, industriagunea mugarrizten zuen hesia botako dute. Ondoren, gunea garbitu, lur begetalagaz, belarragaz eta heskaiekin atondu, eta herritarrentzat erabilgarri ipiniko dute. Inguru horretan aparkaleku plazak daude, eta beste hamabost plaza egingo dituzte.

Lan horien osagarri, Tejera-ko biribilguneatik Asteperainoko galtzara hobetzen dabilta apiriletik. Besteak beste, espaloian apurtuta dauden lauzak eta asfaltoko zuloak konponetzen, autobus geltokiko ikuspena hobetzeko bertan dagoen baranda aldatzen eta argiztapena hobetzen dihardute. Lanen amaiera ekainaren erdirako aurreikusita dago.

## Kultur Hamabostaldia Nahikari elkartearen ardatz

Emakume elkarteak ezagutarazi nahi dute

**MALLABIA** Jone Guenetxea Nahikari emakume elkarteak auzolanean hainbat ekitaldi antolatu ditu Mallabiko Kultur Hamabostaldiaren barruan. Datorren astelehenerako, esate baterako, *Jabekuntza sexuala* tailerra antolatu du. Hurrengo barikuan, berriz, Ttak antzerki taldeak *Ta oain ze?* antzezlanaren taularatuko du kultur etxean. Ekainaren 4an, aldiz, *Sua* filma proiektatuko dute. Ekainaren 7an, ostera, azoka denboran, antzinako euskal emakumeen

antzezpena egingo dute. Garai bateko emakumeen bizitza ezagutaraztea da elkartearen helburua.

**Udaleku irekiak**

Satxibu aisialdi taldeak udako ludoteka antolatuko du ekainaren 29tik uztailearen 17ra (09:30-13:00). 4 eta 14 urte arteko ume eta gazteek parte hartu dezakete. Seme-alaba bat izanez gero, 60 euro dira, eta bi badira, 80 euro. Ekainaren 1era arte izena eman daiteke (616 346 237).

**Chimeneas**  
Cerámicas MACOBER  
Sanitarios

**MACOBER**  
Tronperri kalea, 1 DURANGO  
Zeramika eta gresa

**GALLASTEGI**  
www.gallastegiharategiak.com  
1955ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
Euskal Okela  
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO



# Laubideta ingurua berrurbanizatzeko proiektua aurkeztu du udal gobernu taldeak

Udalaren webgunean publikatu dute proiektua, uztaila orduko auzotarrek euren ekarpenak egin ditzaten



Lehenengo eta behin, saneamendu sarearen azterketa bat egitea jasotzen du proiektuak.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Berrurbanizazio proiektua aurkeztu du gobernu taldeak, Laubideta ingurua “oinetza atseginago” bilakatzeko. José Luis Navarro alkatearen ahotik egitasmoaren nondik norakoak entzute hurreratu ziren 50 auzokide inguru, duela aste bi, Errota kultur etxera.

Lehenengo eta behin, saneamendu sarearen azterketa bat egitea jasotzen du proiektu horrek, ondoren, beharko balitz, hobekuntzak egiteko. Laubideta inguruan galtzada-harrizko zoladura ipintzea ere jasotzen du, eta baita oinetza lehen-tasuna edukiko duten espazio bat sortzea ere. Oinetza gune hori atontzeko, auzokideek gaur egun erabiltzen dituzten

lau-bost aparkaleku kenduko dituztela azaldu du alkateak, baina “ez da aparkatzeko lekurik galduko”, azpimarratu du: “Aldeantzerik, hogeit hamar dozentza bat aparkaleku berri atontzeko ditugu”.

Udalaren webgunean publikatu dute berrurbanizazio proiektua, eta auzotarrek uztailaren 30era arteko epea izango dute ekarpenen bat edo proposamenen bat egiteko.

## Sinadurak biltzen

Proiektuaren eraginez, auzoan aparkatzeko espazioa galduko dela iritzita, sinadurak batzen hasi da auzotar bat. Alkateak esan du ez duela ekimen horren berririk, baina azaldu du “gezurra” dela aparkatzeko espazioa galduko denik. “Atarien aurrean oinetza eremua sortu gura dugu, eta egia da autoa ezingo dela orain bezala ate parean utzi. Baina hogeit hamar orain dagoena baino espazio handiagoa izango dute aparkatzeko”.

## Antzinako euskal ezkontza egingo dute, Ferialekuan

Lau urterik behingo antzezpena egingo dute, bihar

### ABADIÑO I.E.

San Trokaz jaietako lau urterik behingo hitzordua izango da, bihar, Zelaian. Euskal ezkontza tradizional baten antzezpena egingo dute hirugarren biderrez. Zelaia eskolako guraso elkarteak, Talde Batuak dantzariak eta hainbat herritarrek hartuko dute parte ekitaldian.

Ezkontzaren kalejiragaz emango diote egunari hasiera; ezkongaiak eta ezkontzaren parte hartuko duten beste hainbat lagun 12:30ean abiatuko dira Ferialeku plazara. Antzinako arropak eramango dituzte soinean. Antzinako euskal ezkontzetan egiten zen eran, idi buztarri batek eramango duen gurdian, kalerik kale erakutsiko dute emaztegiaren arrea.

Gero, herri bazkaria egingo dute, 14:30ean, Ferialeku plazan (euria egingo balu, probalekuan). Aurreko bi edizioetan bazkaria catering enpresa baten kargu utzi zuten, baina, aurreko, *maleta siku* estilora egingo dute: antolatzaileek ardoa eta ogia ipiniko dute, eta bakoitzak bere jatekoa eramango du. Trikitilariak eta txistulariak joko dute bazkalduan, eta Tximeleta taldearen erromeriagaz eta kontzertuekin emango dute eguna amaituztat.

Eskolako guraso elkarteak, Talde Batuak dantzariak eta hainbat herritarrek hartuko dute ekitaldian parte

## Kalean Day eguna izango dute Herriko plazan

### ELORRIO M.O.

Elorrioko Lourdesko Ama eta Maria Bitarteko ikastetxeek, eta Durangoko Maristak ikastetxeak antolatuta, Kalean Day eguna ospatuko dute, bihar, Herriko plazan. 10:30etik 14:00etara bitartean ekintza ugari parte hartzeko aukera eskainiko dute: aurpegiak margotuko dituzte, Twisterrean jolastuko dira, herri kirolak egongo dira, sentsibilizazio jolasak izango dituzte... Gainera, Xaibor DJaren musikagaz dantzarako aukera ere egongo da.

Ikastetxeetako kideez gainera, herritar guztiei bertan parte hartzeko gonbita egin diete. Lourdesko Ama ikastetxe ortuko eta oilategiko produktuekin otzara bat prestatu dute, eta zozketa bat egingo dute erri-fan parte hartzera animatzen direnen artean.

## Ahmed Ettanji sahararrak berbaldia emango du

Equipo Mediático hedabidekoa da Ahmed Ettanji

**ELORRIO** Markel Onaindia Mendebaldeko Saharako egoera politikoaren berri emango du, datorren martitzenean, Ahmed Ettanji kazetari gazteak, 19:00etan, Portaleku tabernan

Ahmed Ettanji Sahararen eskubideen zein giza eskubideen inguruko lanketa egiten dabil nazioartean

eskainiko duen berbaldian. Equipo Mediático hedabideko kazetaria da, eta Sahararen eskubideen zein giza eskubideen inguruko lanketa egiten dabil nazioartean. Euskal Herrian hainbat lekutan egongo da egunotan.

Ettanjik berak ere sufritu izan du Marokoko Gobernuaren errepresioa. Duela hilabete, adibidez, bere anaia atxilotu zuten, eta Ahmed buruzko galderak egin zizkieten. Hassana Aalia ere, Marokoko bizi osoko kartzelara zigortu eta Espainiak kanporatzeko arriskuan dagoen gaztea, Equipo Mediaticoko kidea da.

Portalekuagaz batera, Euskal Fondo eta Lajwad elkarteak dira berbaldiaren bultzatzaileak. Ez da egunotarako Lajwadek antolatutako duen ekimen bakarra; atzo bertan merkatua egin zuten plazan, Txintxirri ikastolagaz eta institutuagaz elkarlanean. Bertan, *Sahararen gatazka 3.000 hitz baino gutxiagotan* komikia aurkeztu zuten, elorriarrek euskaratu dutena.

### LANBIDE HEZIKETA

**Erdi maila**

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentimendu elektromekanikoa

**Sarbide proba goi mailarako**

**Goi maila**

- Administrazioa eta finantzak
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa
- Mekatronika industriala

**Arratsaldeak:**

- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa

**AURREMATRIKULA**

**25/05-05/06**

#gukleartibai

94 616 9002  
info@leartik.com  
www.leartik.com

**lea artibai**  
ikastetxea  
Etorrizuna erakiz



## Elkartasun jaialdia antolatu du Río de Oro elkarteak

Udan hamaika gazte saharaiu etorriko dira



Umeentzako jolasak, bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte, aurten ere.

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Adin guztiei begirako jaialdia antolatu du biharko Río de Oro elkarteak. Elkartasun jaia da urteroko hitzordu bihurtu den

hori, Tindufeko kanpalekuetan bizi diren eta urritasunen bat duten gazte saharaiuentzat udaldua antolatzen laguntzeko bidea da eta. Umeentzako jolasak,

Maiatzaren 23an,  
11:00etan, **umeentzako tailerrak**

12:30ean, **sabel-dantza**, Danza Durango Zhuzayma taldearen eskutik

13:00etan, **poteoa batukadagaz** (Durangoko batukada feminista)

14:30ean, **herri bazkaria** (txartelak Gauargi tabernan, 12 euroan)

16:00etan, **bingoa eta igel txapelketa**

17:00etan, **kontzertuak, Sermonds + Ganorabakuek + DJ Abaunza + The Owl Project**

kontzertua eta bazkaria antolatu dituzte, besteak beste.

Hamaika gazte saharaiu –zortzi etorriko dira lehenengoz– egingo dituzte uztaila eta abuztua Izurtzako aterpetxean. Baldintza klimatologiko latzetatik aldentzea, osasun arreta globala ematea, eta arlo psikologiko eta hezitzaileen esku-hartzea dute helburu, esaterako. Ekainaren 7rako ere ikuskizun berezia antolatu dute Arymux taldeagaz, Plateruenan.

## Jaurlaritzak ez du diru-laguntzarik emango biomasa galdara egiteko

**OTXANDIO** J. Derteano  
Aurten ere ez du jasoko diru-laguntzarik Otxandiok, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik, eskolan eta pilotalekuan biomasa galdara jartzeko. Hori jakinarazi du udalak asteon. Iaz ere ezezkoa jaso zuen. Santi Uribek azaldu izan duenez, lanen balorazioa egitean Otxandiok ez zituela behar beste puntu lortu esan zioten, baina, aurten saiatzeko. “Aurten zelanbaiteko lehen tasuna izango genuela adierazi ziguten”. Baina ez da horrela gertatu.

Udalak 210.000 euro zituen aurrikusita lan horietarako; Aldundiaren 48.000 euroak lortu ditu, eta 102.000 Jaurlaritzatik jaso gura zituen. Udalak gainerakoa jartzeko asmoa zuen.

> **DURANGALDEA** ASTEON

## Emakumea eta osasuna berbagai

**ZORNOTZA** > Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Egunaren harira, Iraia Garcia atletak, Itxaso Martin Athleticeko jokalaria ohiak eta Naia Fernández saskibaloia entrenatzaileak hitzaldia eskainiko dute hilaren 28an, 19:30ean, Zelaia zentroan. Martitzenean, 20:00etan, *Amaren eskuak* filma eskainiko dute toki berean.

## 135.000 euro elkarteentzat

**DURANGALDEA** > Amankomunazgoak 135.000 euro erabiliko ditu aurten eskualdeko elkarte eta proiektuei laguntzeko. Prentsa ohar bidez Oskar Zarrabeitia presidentek azaldu duenez, gazteria, gizarteratze, kirol eta elkartasun arloak jorratzen dituzten elkarteek emango die dirua, besteak beste.

## Igerilekuen tabernarako deia

**ELORRIO** > Elizaldeko udal igerilekuetako taberna kudeatzeko deialdia zabaldu du BPXport enpresak. Horren ardura hartu gura duenak Elorrioko kiroldegian maiatzaren 27ko 15:00ak baino lehen bi proiektu labor aurkeztu beharko ditu. Proiektuak egiteko informazio guztia Elorrioko kiroldegian dago eskuragarri.

## Bermeora egun pasan joango dira herriko nagusiak

**GARAI** M.O.

San Migel nagusien elkarteak antolatuta, Bermeora (Bizkaia) egun-pasan joango dira herriko nagusiak, maiatzaren 29an. Eguneko ekintza nagusia, Aita Guria baleontzia bertatik bertara ezagutzea izango da. Parte hartu gura dutenek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta hila-

ren 26a da izena emateko azken eguna: Herriko Tabernan dute horretarako aukera.

Garaitik 10:00etan irtengo dira herritarrek. Bermeotik buelta bat eman ostean, baleontzia ikustera joango dira, 12:45ean. Bisita hori amaitzean, bazkaltzera joango dira Casino Mundaka jatetxera. Arroza, bakailaoa eta tarta edukiko dituzte menuan. Egun-pasa amaitzeko, arratsaldea libre izango dute garaitarrek, kostaldeko herria norbere kabuz ezagutu ahal izateko.

## Igerilekuetarako lau behargin hartuko dituzte

**ATXONDO** J.D.

Kanpoko igerilekuen denboraldia laster hasiko da, eta, zerbitzua bermatzeko, lau behargin kontratatuko ditu udalak. Hain zuzen, sorosle bi hartuko ditu igerilariak zaintzeko, eta beste behargin bik atezain eta garbitzaile lanak egingo dituzte. Beraz, guztira, lau langile har-

tzeko deialdia ireki du. Udarako lanpostu horietako bat gura duenak curriculumua udal-txegan utzi behar du. Maiatzaren 25a, astelehena, da horretarako azken eguna.

Horretaz gainera, udarako, ekainaren 22tik irailaren 4ra, bi behargin hartuko ditu udalak. Bakoitzak egun erdiko lanaldia beteko du udal lantaldean. Gaur bertan amaitzen da eskariak aurkezteko epea, eta maiatzaren 27an, eguaztena, jakinaraziko dute nortzuk diren hautatuak.

**Iritzia**

## ‘Hautagaiak frackingaren aurka’ kanpainaren emaitza

Fracking Ez Durangaldea bukatzeko eman du hautagaien konpromisoa jasotzeko kanpaina. Egun hauetan eskualdeko hautagaiak interpelatu ditugu, haustura hidraulikoaren aurkako konpromisoa publiko egin dezaten hautatuak izan aurretik.

Emaitza hurrengoa izan da: konpromisoa sinatu dute EH Bilduk, Podemosek Elorrioren eta Durangon sortutako plataformak eta Hiri Ekimena plataformak (Zornotza). PSE ere agertu da konpromisoa sinatzearen alde.

Beste aldean, erantzunik eman ez duten alderdiak: EAJ, PP eta Abadiñoko Independentistak.

Hala, iritzi diogu herritarrek badutela beste argudio bat botoa ematerako orduan, indar politiko bakoitzak bultzatuko duen eredu energetikoaren ikuspegitik.

Maiatzaren 24an, aldiz, hautatuak izango diren zinegotzi guzti-guztiei gonbidapena luzatzen diegu frackingaren aurkako politika egiteko. Udal eskumenak baliatu ditzatela eskatzen diegu, haustura hidraulikoaren mehatxua Durangaldetik eta leku guztietatik ezabatzeko, osasunarentzat kaltegarria eta ingurumenarekiko suntsitzailea delako. Horren aurrean, gonbidatzen ditugu energia berriztagarrietan oinarritutako tokiko eredu energetiko alternatibo baten alde lan egitera.

Beñat Gallastegi Zelaia-zugadi  
Fracking Ez! Durangaldearen izenean



**astekaria@anboto.org**

asteartea 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

### -DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).



Omar Thior 'Omzo' (Kaolack, Senegal, 1985) eta Arkaitz Cayado 'Itsua' (Durango, 1978) | Beat Salad Records

## “Afrikan sorturiko rapa Mendebaldean zabalduko duen zubia izan nahi dugu”

PPS The Ghost Writah Senegalgo hip hop abeslari ezagunaren diskoa kaleratu du Durangoko Beat Salad Records diskoetxeak

### > MUSIKA Itsaso Esteban

Aurrerapauso berezia izan da Beat Salad Records diskoetxearentzat Senegalgo musikari baten diskoa editatzea?

**Omar Thior:** Bai; izan ere, nazioarte mailako gure lehenengo lana da hau: hiru kontinentetan landutakoa da. Senegalen sortua, AEBetako musikariek grabatua eta Euskal Herrian editatua.

**Arkaitz Cayado:** Aurrerapausoa da, orain arte editatu dugun lanik profesionalena delako, serioena. Gainera, orain arte beti alderdi artistikoan ere parte hartu izan dugu. Haize freskoa izan da, orain arte disko batek dakarren lan guzti-guztia gure gain hartu izan dugulako.

### Zelan sortu zen PPSrekiko harremana?

**O.T.:** Aspalditik jarraitzen dut PPS abeslaria. Senegalgo raparen munduan izen handia da. Disko bat kaleratzeko asmoa zeukala jakin nuen Senegalen bisitan nengoela, eta galdetzerako joan nintzaion ea laguntzerik geneukan. Grabazioa ondo egina zeukan, eta laguntza eskaini genion diskoa argitaratzeko eta Senegaldik kanpo ere zabaltzen saiatzeko. Afrikan sorturiko rapa Mendebaldean zabalduko duen zubia izan nahi dugu.

### Zer moduz hartu zuen proposamena?

**O.T.:** Oso pozik. Guk baino diru eta aukera handiagoak dauzkaten Senegaldik kanpokoa hainbat diskoetxeren eskain-

tzak jasoak zituen, baina ikusi zuen gu rapean gabiltzala eta Afrikarekiko ikuskeraren alde egiten dugula. Uste dugu Afrika ezin dela herrialde hartzailea izatera mugatu, emateko asko duela. PPSren disko hau da horren adibide.

### Diskoaren zenbat ale atera dituzue?

**A.C.:** Gu ohituta gaudenerako, asko egin ditugu: 2.500 alekoa izan da lehenengo edizioa. Disko fisikoez aparte, nazioarte mailan sare sozialen bitartez ezaguturazi, eta modu digitalean ere banatzea da gure apustua. Denda gutxitan, leku espezializatuetan, ipini ditugu aleak salgai. Durangon, Hitz liburu dendan eta Kale Kantoi tabernan.

### PPS Durangaldean bertatik bertara ikusi eta entzuteko aukerarik izango dugu?

**O.T.:** Dena aurreikusi bezala badoa, uztailean etorriko da diskoaren promozioa Bilbon, Gasteizen eta Donostian egitera, eta irailean hainbat kontzertu ematera.

### Zer nabarmenduko zenukete PPSk egiten duen musikari buruz?

**A.C.:** Hip hopa da, baina ez dira DJ baten ohiko baseen gaineko berbak bakarrik. Musikari askok parte hartu dute, kanta batzuk akustikoak dira... Guk entzun ohi duguna baino musika leunagoa da.

**O.T.:** Senegalen, oso musikari errespetatua da PPS. Urtero egiten den rap lehia-



keta batean, mila partaidetik hirugarren sailkatzea lortu zuen.

**A.C.:** Nik ez nuen PPS ezagutzen kolaborazio honen aurretik, baina banekien Omarrek bere herrialdetik ekarriko zidanak mereziko zuela. Eta horrela izan da. Omar da gurean Afrikaren ahotsa.

### Wólof hizkuntzan kantatzen du PPSk. Zeintzuk gairi buruz?

**A.C.:** Batetik, bere esperientziei buruz kantatzen du. Bestetik, Afrikari buruz ere badihardu: Afrikak esnatu beharra duela dio, ezin dugula Mendebaldearen menpe bizitzen jarraitu.

## Jakin-mina dutenentzat, woloferaz kantaturikoa

Bere hizkuntzan dihardu Senegalgo PPS abeslariak



PPS The Ghost Writah (Paul Pissety Sagna) abeslaria.

lazko urte erdi bere jaioterrian, Senegalen, eman zuen Omar Thior *Omzo* Beat Salad Records ekoiztetxe autogestionatuko kideak, eta han ezagutu zuen PPS The Ghost Writah abeslaria. Wólof hizkuntza darabil PPSk bere kantuetan. *Omzoren* berbetan, “sortzen dutena Mendebaldera zabaltzeko ingelesez edo frantsesez

kantatzea ez dela nahitaezkoa erakutsi gura die PPSk afrikarrei: oso barneratua du beretik eman behar duela, inor imitatu gabe”. Arkaitz Cayado *Itsua* kideak dio askok pentsatzen dutela hizkuntza handiak baliatu behar direla norbere sorkuntza atzerrian zabaltzeko: “Guk uste dugu garena erakustea ere zabaldu ditzakeela ateak”.



Beat Salad Records diskoetxeak editaturiko diskoaren azaleko irudia.

PPSren kantak entzutean, “baina ez dut ezer ulertzen...” esaten duenaren jarrerak ez die balio Itsuari eta Omzori. “Jakin-mina duenak, rapa gustuko duenak, gure herrietan bizi diren senegaldarrei eskatu diezaieke, adibidez, kanten letrak azaltzeko edo itzultzeko”, adierazi du Itsuak.

Omar Thiorrek dio nekatuta dagoela rapa umemokoen musika dela entzuteaz. “Senegalen unibertsitatea da hip hop abeslarien harrobi handiena”. Eta horrela da PPS abeslariaren kasuan ere. “Senegalgo hip hop kantarien %90ek jendearentzat baliagarriak diren gauzak kantatzen dituzte, asko daukate esateko”. Barrezka dio Omzok: “Mendebaldeak Afrikan lortu ez zuena, raparen bitartez lortuko dugu: Mendebaldearen kolonizazio mentala”.



**> MUSIKA** Itsaso Esteban Maiatzaren 29an, 22:00etatik aurrera, Elorrioko Arriolan joko du Angel Stanich (Santander, Espainia, 1988) musikari gazteak. Hirukoteak lagunduta dabil, azken hilabeteotan, *Camino ácido* izenburuko diskoko kantak zuzenean aurkezten.

Stanichek 2014. urteko otsailean kaleratu zuen *Camino ácido*, Arizona Baby taldeko Javier Vielbak produzituriko diskoa. Lan hori "konformismoari emandako zaplasteko bat" da, aurkezpen orrian esaten denez. Jakin-mina duten belarrientzako bazka, rock alternatiboa eta ezohiko popa uztartzen dituena.



Stanichek 2014. urteko otsailean kaleratu zuen 'Camino ácido' diskoa.

## Ángel Stanichek 'Camino ácido' eskainiko die Arriolako entzuleei

Maiatzaren 29an ariko da Santanderreko abeslaria, hiru musikaririk lagunduta

Nortasun handiko ahotsa, eta ironia eta surrealismoa baliatuz idatziriko letrak dauzka Stanichek

Iazko apirilean, kontzertu akustiko bateko lau kanta biltzen dituen *Disparar a un hombre en Reno* disko laburra kaleratu zuen Stanichek. Aurtengo otsailean, *Cuatro truenos cayen*

ron lau kantako diskoa kaleratu du; besteak beste, *Carbura!* eta *Mojo* izenburuko abesti berriak ezagutarazi dituena.

Nortasun handiko ahotsa du Stanich gazteak, eta ironia eta

surrealismoa baliatuz idatziriko letrak dituzte kantuek. Bere ahotsari buruz, haren zaleek diote ez duela inor epel uzten: edo oso gogoko izaten dela edo ez dela batere gustuko izaten.

Aurreko astean, Granadan kontzertua eskaini ostean, eta, hilaren 30ean, Palentzian joko duko, izango da Ángel Stanich musikaria Elorrioko Arriolan entzuteko aukera.

## Musika eskolako ikasle eta irakasleak, oholtzan

Ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute, bihar

**> MUSIKA**

Elorrioko musika eskolako ikasleek eta irakasleek Arriola antzokian eskainiko dute emanaldia, bihar, 18:30ean. 5 eta 7 urte arteko umeek dantza emanaldia eskainiko dute, eta, jarraian, abesbatzak lagunduta kantatuko dute. Ondoren, hainbat estilotako abestiak joko dituzte musika eskolako taldeek.

Urte berezia da aurtengoa Elorrioko musika eskolan. Izan ere, 25. urteurrena ospatzeko, hainbat ekintza antolatuko dituzte. Arduradunek asteon aurreratu dute ekainaren 13an ospakizun berezia egingo dutela: ikasleek eta irakasleek kon-

zertua eskainiko dute plazan, eta herri bazkari bat egingo dute, ondoren. Kantu saioa egingo dute bazkalostean. Ekainaren 13an bazkaltzera joan nahi duenak hilaren 5a baino lehenago hartu beharko du txartela, 10 euroan, Kaixo tabernan, Matzorri okindegian edo Montse lurrindegian. Bestela, bihar, Arriolako hitzorduan ere eskuratu ahal izango dira txartelak.

Bestalde, matrikula maiatzaren 25etik ekainaren 17ra egin ahal dela jakinarazi dute musika eskolako arduradunek. Eguetan, 15:00etatik 16:00etara, eta barikuetan, 17:30etik 19:30era, eman daiteke izena.

## 'La casta vasca' liburua aurkeztuko dute Hitzzen

Durangoko Hitz liburu dendan egongo da egilea

**> LITERATURA**

Maiatzaren 28an, 19:00etatik aurrera, Durangoko Hitz liburu dendan bere liburua aurkeztera gonbidatu dute Ahoztar Zelaia (1972) kazetaria. *La casta vasca. Mafias y Gobierno Vasco en la última década* izenburua du liburua, eta ordu erdi pasatxoko aurkezpena egingo du Zelaia. Hitz liburu dendan ohitura denez, aurkezpenaren ostean, mokadutxo hartzeko eta egileagaz zein bertaratutakoekin berba egiteko aukera egongo da.

"Zeinek esan zuen euskaldunen herri atipikoan ez dela korrupzioa edo nepotismoa existitzen?", galderari erantzunez

idatzi du liburua, besteak beste, *Egin* egunkarian, Tas Tas Irratian eta *Ardi beltza* aldizkarian ibilitako Zelaieta kazetariak.

'La casta vasca. Mafias y Gobierno Vasco en la última década' liburua aurkeztera dator Zelaieta Durangora

Liburuaren aurkezpen orrian esaten denez, ikerkuntza lan baten emaitza da *La casta vasca* liburua, eta Euskadiko korrupzioaren eta klientelismoaren inguruko datuak ematen ditu idazleak bertan.

## GEURE DURANGALDEA

**JON IRAZABAL**

Gerediagako kidea



### Hauteskundeak

Igandean, berriz, lau urtez behin bezala, nahi duenak bere botoa emango du. Oraingoan hurbileko hautaketa egin beharra dago, zinegotziak eta Gernikarako ordezkariak. Askok izango dituzte zerrendetan familiartekoak, lagunak eta ezagunak. Oso ongi ezagutzen ditugun gizon eta emakumeak, eta... hainbeste ezagutzeak zalantza sortzen ditu. "Baina honek zinegotzirako balio du?". Galdera hori bakoitzak erantzun behar du. Dena dela, kanpaina igaro ondoren, konturatu naiz hauteskunde hauek badagoela mamu bat inork ez duena aipatu ere egin.

Madrilek asmoa du herri administrazioiko legea aldatzeko. Saiatu izan da, eta zirriborro bat ere prestatu izan du, baina momentuz berriz gorde du, jaso duen kritika zaparradagatik. Proposatzen zuten 5.000 biztanle baino gutxiago duten herriak eta mankomunitateak desagertzea. Pentsatu dute horrela herri mailako estruktura arindu eta kostuak gutxituko direla. Gure eskualdean 9 udalerrri desagertuko lirateke; Otxandio, Mañaria, Izurtza, Iurreta, Garai, Berriz, Zaldibar, Mallabia eta Atxondo. Desagertu ezean, euren eskumen asko, urbanismoari dagokiona adibidez, Foru Aldundiaren esku geldituko litzateke.

Badakit esango dutela Madrileko gobernuak gure lurraldean ez duela arlo horretan eskumenik. Irakaskuntza ere ez, baina... Ikusten dugu beti topatzen dutela bideren bat pentsatzen dutena aurrera eramateko. 2019an 4 udalerrri Durangaldean? Ez nuke nahi, eta horregatik adi egon eta mugitu gaitezke berandu izan orduko, edo bestela lurretarrei galdetu nolakoa den historia.

Sanagustina 16, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Soinuako ikasleen kontzertua**  
Maiatzaren 22an - 18:30ean

**Adinekoek antzeztutako VI. antzerki jardunaldiak**  
Maiatzak 27 / 28 / 29 / 31n

San Agustin KULTUR GUNEAK  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

**EGUNEKO MENUA**  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

**MAIATZAK 22**  
19:30ean  
**COMBO KONTZERTUAK**  
KONTZERTUA

**MAIATZAK 23**  
22:30ean  
**GRISES + SEIURTE**  
KONTZERTUA

**MAIATZAK 27**  
19:00etan  
**BELTZAN MINTZO**  
IKUS ENTZUNEZKOA





# Lanerako Langile Trebatuak

## ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

### ESKAINZA OSOA

#### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

#### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

### ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

### SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

### ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

## DATAK

Aurrematrikula  
maiatzaren 25etik  
ekainaren 5era

Matrikula  
uztailaren 16tik 21era

Tel: 94 673 02 51  
e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)





**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Izaskun Asua aktorearen zuzendaritzagaz landutako *El mesón de los suspiros* antzezlan aurkeztuko du Durangoko Goratagora antzerki taldeak San Agustinen. Izan ere, maiatzaren 27tik 31ra, Adinekoen VI. Antzerki Jardunaldia egingo dute Durangon. Adinekoen udal egoitzaren babesean sorturiko antzerki taldea da Goratagora, eta hainbat idazleren testuetan oinarrituriko obra aurkeztuko du, maiatzaren 29an eta 31n, 19:00etan, San Agustinen. Hainbat antzerki obratatik hartutako pertsonaia bereziak herri txiki batean elkartuko dituzte Durangoko adineko aktoreek.

Hainbat obratatik hartutako pertsonaia bereziak herri txiki batean elkartuko dituzte Goratagorako durangarrek

Durangoko antzerki taldearen emanaldiak itxiko du aurtengo edizioa, baina, horren aurretik, Galdakaoko eta Gasteizko beste talde biren lana ikusteko aukera ere izango da San Agustinen. Maiatzaren

## Adineko aktoreek hiru antzezlan eskainiko dituzte San Agustinen

Maiatzaren 27tik 31ra, Adinekoen VI. Antzerki Jardunaldia egingo dute Durangon



Antzerki jardunaldiaren 2013. urteko edizioan 'La bodeguilla' obra aurkeztu zuen Goratagora taldeak.

27an, *Suegras Bárbara's* izeneko endredoizko komedia eskainiko dute Galdakaoko Alborada Berri elkarte kulturalakoek. Hugo Daniel Marcos argentinarrak idatzitako testuan oinarriturikoa da antzezlan hori.

Bi urterik behin antolatzen dute adinekoen antzerki zikloa Durangon; seigarren edizioa da aurtengoa

Maiatzaren 28rako, bestalde, Gasteizko Las Cuatro Torres elkarteak kideak gonbidatu dituzte Durangora, *Aquí no paga nadie* antzerki obra eskaintzera. Dario Fo idazle italiarraren komedia da taularatuko dutena,

Maiatzaren 27an, 18:00etan, **Suegras Bárbara's**, Galdakaoko Alborada Berri elkarte kulturalaren eskutik

Maiatzaren 28an, 18:00etan, **Aquí no paga nadie**, Gasteizko Las Cuatro Torres elkartearen eskutik

Maiatzaren 29an eta 31n, 19:00etan **El mesón de los suspiros**, Durangoko Goratagora antzerki taldearen eskutik

Emanaldi guztiak San Agustín kulturgunean egingo dituzte

eta krisi garaian bizirauteko borrokan dabilen bikote baten gorabeherak ditu berbagai.

Bi urterik behin antolatzen du adinekoen antzerki jardunaldia Durangoko Udalak, eta seigarren edizioa da aurtengoa. "Antzezlekuan jardutera ausartzen diren adineko pertsonak ikusteko aukera eskaintzen die jardunaldiak ikusleei". Ikusle guztientzat, baina bereziki adinekoentzat, oso motibagarria da, adinekoak izan arren edo arazo fisikoak izan arren, antzerki obra batean parte hartze ilusioa eta ahalmena duten kideak antzerkia egiten ikustea.

## Euskal kulturagaz loturiko hainbat ekintza eta emanaldi herriko eragileen eskutik, Durangon

Gaur hasi eta ekainaren 20ra arteko egitaraua antolatu dute Durangoko 25 eragilek, XVIII. Euskal Asterako



Joan zen egunean, elkarten ordezkariak eta alkateak aurkeztu zuten egitaraua, udaletxeko udalbatzar aretoko agerraldian.

**> EGITARAUA** Durangoko hamabost kultur eta kirol talderen ordezkariak aurkeztu zuten, joan zen egunean, gaur hasiko den Euskal Astearen egitaraua. Ekainaren 20ra bitartean euskaragaz eta euskal kulturagaz loturiko askotariko ekintzak ekarriko ditu XVIII. Euskal Asteak Durangora. Egitaraua antolatzen parte hartzen duten elkarten ordezkariak eta Aitziber Irigoras Durangoko alkateak aurkeztu zuten egita-

raua. Durangoko 25 elkarten egin dituzte aurten Euskal Asterako euren ekarpenak: elkarte bakoitzak urtean lantzen duen arloko emanaldiak edo erakustaldiak antolatzen ditu maiatzeko eta ekaineko egitaraurako. Aurten ere ez dira faltako udaleko Euskara Sailak antolatzen duen Julene Azpeitia literatura lehiaketa, Silboberri elkarteak antolatzen duen txistu kontzertua, Tronperri dantza taldeak gonbidatuta beste herrialde

batzuetatik etorritako taldeen euskal dantzen emanaldiak, Durangoko Orfeoaren eta Sugarri fanfarrearen kontzertuak, Arandoño elkarteak antolaturiko organo kontzertua eta Alpino mendi taldeak eskainitako dokumental emanaldia, esaterako.

Beste eragile batzuk gehitu dira aurten, gainera, Euskal Astera; Garabide elkarte, Nevers ikastetxea eta Intxaurre kultur elkarte batu dira ekimenera. Ameriketako jatorrizko

hizkuntzen inguruko *Beltzean mintzo* dokumentala eskainiko du Garabide elkarteak, maiatzaren 27an, 19:30ean, Plateruean. Egun horretan, 09:10etik 10:10era, irrati tailerra egingo dute Nevers ikastetxeko DBHko ikasleak, Durango Irratian.

Intxaurre kultur elkarteak, bestalde, Santutxuko Gaztedi taldea gonbidatu du, ekainaren 13an maskarada antzeztera. Kalejiragaz hasiko dute maskaradagaz loturiko egitaraua,

11:30ean, eta, 16:30ean, Balbino Garitonandia plazan hasiko da ordu biko ikuskizuna.

Bestalde, bost urtean behin izaten den hitzordua antolatu du Kriskitin dantza taldeak. Antzinako erako eztegia egingo dute, ekainaren 20an. San Agustín kulturgunean hasiko dute eztegia, Santa Anan egingo dute arreoaren aurkezpena, eta musika eskolako berdegunean egingo dituzte bazkaria eta bazkalosteko erromeria.

### ASTE BURU HONETAKO EGITARAUA

- **Maiatzaren 22an**  
18:00etan, **Esku Pilota Eskolako Haurren XXV. Txapelketa**, Ezkurdi pilotalekuan  
19:30ean, **Peterren Omenezko VI. Esku Pilota Jaialdiko finalerdiak**, Ezkurdi pilotalekuan
- **Maiatzaren 23an**  
18:00etan, **XIV. Zesta-punta Txapelketa**, Ezkurdi pilotalekuan  
19:40ean, **33. Euskal Dantzen Jaialdia**, Andra Mariko elizpean
- **Maiatzaren 24an**  
11:00etan, **Esku Pilota Eskolako Haurren XXV. Txapelketa**, Ezkurdi pilotalekuan  
12:45ean, **33. Euskal Dantzen Jaialdia**, Andra Mariko elizpean



# Playoffetako lehenengo partidua jokatu du, domekan, Kulturalak

Deportivo B-ren aurka izango da norgehiagoka, Tabira futbol zelaian



Kulturalako jokalariek aldageletan, playoffetarako sailkapena ospatzen.

**> FUTBOLA** Eneko Azurmendi Pasa den asteburuan, Durangoko Kulturalak Bigarren B Mailara igotzeko playoffetarako sailkapena lortu zuen. Ligako azkenengo partidua Portugaleteren aurka zuten durangarrek,

etxean, eta, asko sufritu arren, 1-0 irabazi, eta sailkatzea lortu zuten.

Deportivo B taldearen aurka izango da lehenengo kanporaketa. Imanol de la Sota entrenatzaileak dio kanporaketa zaila izan-

go dela: "Taldea gaztea da, oso dinamikoa, eta, klub handien harrobiko edozein taldek bezala, oso gustuko du baloia edukitzea. Gauzak zail jarriko dizkigu". Denboraldi hasiera kaskarra egin bazuen ere, bigarren

itzuli biribila osatu du talde gaziarrak, eta playoffetara bete-betean iritsi da.

Baina Kulturala ere sasoitsu heldu da kanporaketa honetara; izan ere, azkenengo bost partidua irabazi ditu. Gainera, ez dago inor min hartuta, eta jokalariek guztiak egongo dira entrenatzailearen aginduetara.

Hiru kanporaketa gainditu beharko dituzte durangarrek, mailaz igotzea lortzeko, eta guztietan lehenengo partidua etxean izango da, ligan laugarren postuan amaitu duelako.

Maila profesionalean gertatzen den bezala, mota honetako kanporaketetan kanpoko goleak balio bikoitza dute. Beraz, oso garrantzitsua izango da domekan golik ez jasotzea eta Deportivoren atea zulatzea, itzuliko partidura aukerarekin iristeko.

Sare sozialetan zabaldu da itzuliko partidua Riazorren - Lehen Mailako futbol zelaia - jokatu daitekeela, baina Imanol de la Sota ez da fio: "Ederra izango litzateke hori, baina oraindik ez dakigu non jokatuko dugun".

Portugaleteren aurkako partiduan giro ederra egon zen harmailetan, eta tentsioa nabaritu zen. Hala ere, hurrengo partidua garrantzi handiagoa duela azpimarratu du entrenatzaileak, eta partidura gerturatzeko deia luzatu die durangarrei.

## Garciak brontzea jantzi du Espainiako Trail Txapelketan

Sufritzeko ahalmenak ekarri dio domina

### > KORRIKA

Joan zen asteburuan, Espainiako Trail Txapelketa jokatu zuten Benia de Onisen (Asturias, Espainia). Durangaldea Running taldeko David Garcia hirugarren sailkatu zen, eta brontzezko domina irabazi zuen.

Korrikalariak 35 kilometro eta 2.200 metroko desnibel po-

sitiboari aurre egin behar izan zioten. Durangarra ez zen sasorik onenean heldu, zaintiratu bat tarteko eta entrenamendu faltagatik. Hala ere, sufritzen jakin zuen, eta dominak "poz itzela" eman diola adierazi du. Javier Crespo eta Enrique Menezes korrikalarien atzetik helmugaratu zen.

## Aitor Ajuria bigarren, gazte mailako Zegama-Aizkorri

Espainiako txapelkunaren aurretik sailkatu da

### > KORRIKA

Aitor Ajuria (Otxandio, 1998) bigarren amaitu du Zegama-Aizkorri Junior Trail gazte mailako lasterketa. Iaz, bere lehenengo parte hartzean, postu berean amaitu zuen.

Aurten oso maila altua egon da gazte mailako lasterketan.

Esaterako, Kataluniako selekzioak ia osorik parte hartu du eta maila handia dute. Jan Margarit irabazlea gaur egun harrapaezina da edonorentzat, baina Ajuria, esaterako, Josep Morales junior mailako Espainiako txapelkunaren aurretik sailkatu zen.

## Tenis, frontenis eta areto futbol lehiaketak Mallabian

Mallabiko kirol elkarteak antolatuko ditu

### > IZEN-EMATEA

Mallabiko kirol elkarteak antolatuta, euskararen aldeko areto futbol maratona jokatu dute ekainaren 5etik 7ra. Izen-ematea 70 euro da, irabazleak 600 euro jasoko ditu, bigarrenak 400 euro eta hirugarrenak 250.

Frontenis txapelketa ekainaren 20an egingo dute. Izen-

ematea 5 euro da bazkideentzat eta 7 bazkide ez direnentzat. Irabazleak 90 euro jasoko ditu. Tenis txapelketa ekainaren 8tik uztaillaren 10era izango da: bazkideek 5 euro ordainduko dituzte, eta gainontzekoek 12.

Izen-emateak honako telefono zenbaki honetan egin daitezke: 669 028 718.

## San Trokaz txapelketako finalak jokatu dira bihar

Asier Aspuru abadiñarra da finalistetako bat

### > PILOTA

San Trokaz jaien barruan, izen bereko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte zapatuan, 18:00etan, Zelaietako pilotalekuan. Txapelketak binaka jokatu dituzte.

Promesen mailan, Asier Aspuru abadiñarrak txapela janz-

teko aukera du; Mendia zeanuritarrek eta biek Munitibarko Albizu eta Markinako Pujana izango dituzte kontrario. Kadete mailako finalean, gipuzkoarren arteko lehia izango da: Orbegozo eta Oliden aňorgarrek Alberdi eta Zubeldia azpeitiarren aurka jokatu dute.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

###### Kulturala - Deportivo B

· Domekan, 11:45ean, Tabiran.

##### MAILA GORENA

###### Zaldua - Ugeraga

· Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian.

##### LEHEN ERREGIONALA

###### Berriz futbol taldea - Busturia

· Zapatuan, 16:30ean, Berrizburu futbol zelaian.

#### > PILOTA

##### SAN TROKAZ TXAPELKETA (finalak)

###### Binaka kadeteak

###### Orbegozo-Oliden / Alberdi-Zubeldia

· Zapatuan, 18:00etan, Zelaietako pilotalekuan.

###### Binaka promesak

###### Aspuru-Mendia / Albizu-Pujana

· Zapatuan, 18:00etan, Zelaietako pilotalekuan.

#### > ERRUGBIA

###### - Durango Rugby Taldea B - Eibar Rugby Taldea B

· Barikuan, 19:30ean, Durangoko Arripausetan.

###### - Elorrio Parra Taberna - Gaztedi B

· Zapatuan, 17:00etan, Elorrioren.

#### > BOLA JOKOA

**Eskualdeko Bola Joko Txapelketa (azken jardunaldia):** Zapatuan, 10:00etatik 13:00etara, Zornotzako Gure Kirolak bolatokian.

## Biharko Izarrak txapelketa azken txanpan sartu da

### > PILOTA

Mallabiko Biharko Izarrak Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Datorren egunean finalerdia jokatu dituzte, eta finalak ekainaren 5ean izango dira. Finalerdietako bikote bat Oier Etxebarria 17 urteko atzelari lemoarrak eta Joanes Bakaikoa 18 urteko aurrelari etxarriarrak osatuko dute.

Gainerako bikoteak atzoko finalerdien ostean osatu zituzten (emaitzak [anboto.org](http://anboto.org) webgunean ikusgai). Adur Lasa 21 urteko etxarriarraren eta Peru Labaka 20 urteko zizurkildararen bikoteak nortzuk izango diren erabaki ziren atzoko azken jardunaldian.

Lau t'erdiko lehen finalerdia ere jokatu zuten atzo, Aurrekoetxea lemoarraren eta Egiguren lizartzarraren artean. Bigarren finalerdia datorren egun gauean jokatu dute Etxebarria uhartearen eta Arrizabalaga ondarroarraren artean. Nafarra da finalera sailkatzeko faborito argia.



# Tabirako Baqueko gizonen Bigarren Nazional Mailarako igoera lortu dute

Igoeragaz gizonen talde nagusi biak elkarren segidako mailetan egongo dira



Sestaoko Las Llanasen jokatuako lauko finalean lortu zuten igoera. Tabirako Baqué

**> SASKIBALOIA** J. Derteano Tabirako Baquéko gizonen bigarren taldeak igoera lortu du. Bizkaitik Euskadirako salto eman, eta Bigarren Nazional Mailan jokatu du hurrengo

denboraldian, talde nagusiak baino maila bat beherago.

Igoera inportantea da jokalarien trebakuntzari begira; batez ere, gazteentzat. Aurten taldeko entrenatzailea izan den

Xabi Ortuosteren esanetan, "Bizkai mailan benetako bost-sei partidu gogor izaten dira denboraldian, baina Bigarren Nazional Mailan beste kontu bat da, maila handiagoa dago".

## Zornotza igoera fasetik kanpora geratu da

**> SASKIBALOIA** Zornotza Saskibaloi Taldeak burua goian duela esan dio agur Zilarrezko Adecco Ligarako igoera faseari. Joan zen bari-kuan galdu egin zuen Larrean jokatuako partidua (75-80), eta Guadalajara sailkatu da igoera faseko finalerako. Hala ere, partidu ona jokatu zuten Mikel Garitaonandia entrenatzaile-

learen gizonen. Azkenera arte irabazteko aukerak izan zituzten. Azpimarratzekoa izan zen zaleen erantzuna ere. Marea berdeak lepo bete zuen Zornotzako kiroldegia, eta etengabe animatu zuten.

### Beteranoen partidua

Bestalde, zapatuan, 18:00etan, lagunarteko partidua jokatu dute Alemaniako Alba Berlin taldeak eta Zornotzak, Larrean. Beraz, Zornotzako aspaldiko jokalaria ikusteko aukera egongo da.

Beraz, junior taldeetik datozen jokalariek –zuzenean lehenengo taldera ez doazena– maila handiagoko taldeen kontra jokatu dute hurrengo denboraldian. Horrela, ofizioa ikasteko aukera egokiagoa izango dute, eta hori ona da harrobitik bizi den klub batentzat.

Sestaoko (Bizkaia) Las Llanas kiroldegian jokatuako lauko finalean lortu zuen igoera talde durangarrak. Agustinos taldea 60-53 menperatu ostean, Leioaren kontrako finala puntu baten aldeagaz irabazi zuen: 70-69. Segundo biren faltan, Leioaren jaurtiketa saiakera ez zen uztaira heldu Tabirakoren defentsa lan onari esker.

### Kadeteak, Espainiakoan

Bestalde, Bizkaiko Kopa irabazi ostean, Tabirakoko nesken kadete taldeak Espainiako Txapelketa jokatu du maiatzaren 24tik 30era, Leonen. Ourenseko, Leongo eta Kantabriako taldeak egokitu zaizkio ligaxkako multzoan.

## Mendibeltzek 10. urteurrena ospatuko du zapatuan

Atzoko eta gaurko jokalaria batuko dituzte



Mendibeltsen aurten ibili diren jokalaria.

### > ARETO FUTBOLA

Durangoko Mendibeltz areto futbol taldeak hamar urte egin ditu, eta hainbat ekitaldi prestatu ditu biharko, urteurrena ospatzeko. Esaterako, 10:30ean Mendibeltz sortu zenetik gaur egunera arteko 32 jokalaria batuko dira, eta txapelketa bat jokatu dute Landako kiroldegian. Ondoren, 13:00etan, zaleak eta

jokalaria Santa Anan batuko dira familia argazkiak ateratzeko, eta, poteoan ibili ostean, Plateruenean bazkalduko dute.

Mendibeltzek Bigarren Erregionalean jokatzen du, eta "lagun giroa" lehenesten du: "Taldeen giro ona bilatzen dugu, eta jendeari areto futboleko jokatzeko aukera eskaini gura diogu", dio Luisma Reyes presidentek.

## Rodríguez eta Gorostiza onenak Gipuzkoako Itzulian

Itzuliaz gainera, etapa bana irabazi dute

### > TXIRRINDULARITZA

BZK Emakumeen Bira taldeko Gloria Rodríguez murtziarrak eta CAF Transport Engineering taldeko Aroa Gorostiza elorriarrak Gipuzkoako Itzulia irabazi dute elite mailan eta kadete mailan, hurrenez hurren.

Sailkapen nagusiagaz batera, etapa bana ere irabazi dute. Rodríguezek Bergarako atariko erlojupekoa irabazi zuen (1,7 km), eta hurrengo etapa bietan aldeari eusteko kapaz izan zen. Gorostiza, ostera, Tolosan hasi eta amaitu zen etapan gailen-

### ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbola

### Areto futbol maratoiak

Amaitu da denboraldia, eta Presion Break taldeak Hirugarren Mailara igotzeko aukera du. Igoera lortuz gero, albiste handia litzateke, eta Durangaldea euskal areto futbolaren elitara eramango luke berriro, Nazional Mailan hiru talde egongo liratekeelako.

Orain maratien ordua da. Duela urte batzuk lagunak batzeko antolatzen ziren; futbol taldeetan eta areto futboleko taldeetan zebiltzan jokalariai batu, eta ekaina lehiatzen ematen zuten. Gaur egun, batzuetan, sariak irabazteko helburu bakarragaz osatzen dituzte taldeak maratoietarako.

Mallabiko maratoi xumea izango da lehenengoa, ekainaren 5etik 7ra. Hurrengo asteburuan, Berrizen ikuskizun handia izango dugu, harmailak jendez beteta daudela, eta, aste bi geroago, Zaldibarren txanda izango da. Zaldibarko maratoia handi bihurtu da: herri osoak pasio handiz bizi du.

Maratoiek esfortzu handia eskatzen diete puntako taldeei, eta asteburuko lau-sei partidu inguru jokatu behar izaten dituzte. Ez dira lehiaketa errazak; aitzitik, erritmo eta tentsio handiagaz jokatzen dituzte. Gezurra dirudi denboraldi gogor baten ostean jokalariek oraindik gogoia eta indarra batzea hain exijentzia fisiko handian lehiatzeko.

Jende asko batzen dute, eta erraza da harmailak lepo ikustea. Klub federatu askok nahiko lukete jende kopuru erdia batzea lehiaketa ofizialeko partiduetan. Horrek guztiak areto futbola oso kirol erakargarria dela erakusten du, baina federazio mailan goitik behera doa. Izan ere, agintarientzat *futbito*a bakarrik gara, hau da, futbol txikia.

du zen. Bere taldekide Maialen Aramendiak Bergarako erlojupekoa irabazi zuen.


### Euskaldun Torneoa

Itzuliko lasterketa guztiak Euskaldun Torneorako puntugarriak izan dira, eta liderren artean ez da aldaketarik egon: Gloria Rodríguez (BZK), nagusietan, Lourdes Oyarbide (Bizkaia-Durango), 23 urtez azpikoetan, eta Maialen Aramendia (CAF Transport), kadeteetan, dira une honetako liderrak.

**DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA**  
2015-2016 ikasturtea




**ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA**



**SUKALDARITZA**



**ELEMENTU METALIKOEN FABRIKAZIOA**



**BERAZARITZA-LOREZARITZA**

**DOHAINIK**

**OINARRIZKO LANBIDE NEZIKETA (OLH)**

Tfnoo: 946 232 322  
 Lauñada kalea 4, 48200 DURANGO  
 www.miturango.org



# · Etorri ikustera ·



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrión aukera oso onak!



*Durangoko herrigunean*



*Energia-eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*



*Hiriko txaletak*



*Oiz mendira begiratokiak*



*Leku zabalak*

**[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)**

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 916 673

**f** Zarate eta Elexpe Eragileak SL.





Armando Llamosas | Eusko Jaurlaritzako Arkeologia teknikaria | Getxo, 1962

## “Botere ikur izateko funtzioa zuen Astxiki gazteluak, militarra barik”

‘El castillo de Astxiki. Una atalaya sobre el Duranguesado’ hitzaldia eskaini du Armando Llamosasek Durangoko Arte eta Historia Museoan antolatutako VI. Arkeologia eta Historia Jardunaldietan



**> BERBAZ** Aitziber Basauri Urkiolak gordetzen duen ondarea aztertzeke Jaurlaritzak abiatutako egitasmoaren barruan hasi zituzten indusketak Astxikin, 1994an. Gerediaga Elkartearen esku utzi zuten mendizaleek han aurkitutako hainbat material, eta horrek Astxikik gordetakoak ezagutzeko ikusmina sortu zuen.

**Nafarroaren eta Gaztelaren arteko borroketan erreferentzia bakarrenetarikoa da Bizkaian Astxiki?**

Ez, bospasei gaztelu daude. Hala ere, Malmasin mendian dagoena da dokumentatuta dagoen bakarra. Egia da testuinguru horretan kokatzen dela Astxiki, baina zehatz-mehatz ez dakigu ezer.

**Defentsarako barik, ikusia izateko gaztelua zen Astxikikoa?**

Gazteluagaz batera, burura datorkigu herritxoren bat edo egon zitekeela, adibidez. Baina Astxiki mendi puntan dago. Bertaratzen bazara, agerikoa da ez zela defentsarako baliagarria; behealdean bospasei lagun ipiniz gero, neutralizatuta legoke gaztelua. Gainera, hortik ez da ezer babesten. Bisualki Duran-

galdea kontrolatu daiteke, baina oso altu dago, eta defentsarako balio hori galtzen du.

**Durangalde osoa ikusten da...**

Ezaugarri hori oso nabarmena da beste gaztelu batzuetan ere; Bizkaian batez ere, baina Kantaurialde osoan eta Leonen ere bai. Untzuetako gazteluak (Orozko) ere badu bere historia militarra; hala ere, ikusia izateko zereginean datza bere balioa, eta ez hainbeste ekintza garrantzitsuren bat gauzatzean.

**Botere sinboloa, finean.**

Askotan gertatzen da hori. Gaur egungo administrazioaren erai-kinen ere bai, adibidez: militaragoak direnak, administratiboagoak, eta “kontuz, hemen gaude” esateko balio dutenak daude. Oso ondo ikusten ziren gaztelu horiek, eta botere sinboloak ziren. Astxikikoaren ezau- garri nagusia hori da.

**Bizkaiko Museo Arkeologikoan daude han aurkitutako ezpatak, lantzak, aitzoren bat...**

Material arrunta da topatutakoa, horrelako inguruetan agertu ohi dena. Baina testuingurutik kanpo agertu dira, induske-



Astxiki gaztelua  
Gerdiaga elkarte

tetan beharrean: mendizaleek aurkitu dituzte, eta testuinguru- ruan jartzea oso zaila da.

**Behe Erdi Arokoak dira.**

Horrela da. Batetik, defentsarako inguruetan oso ohikoak diren gezien puntak daude –jaurti egiten direnez, erraz galtzen dira–, eta, bestetik, ezpatak. Bereizgarria dena da aurkitutako ezpata kopurua; Bizkai, Araba eta Gipuzkoan topatutako hamabost ezpatetako ia hamar Astxikin egon dira. Oso agerpen deskopentsatua da, orandik argitzeke dagoena. Toki arraroe- tan agertu dira, gainera: ezpata xumeak, baina militarrek dira; preziatuak berez, ez dira nola hala galtzen. Pentsa daiteke amildegitik jausi zirela edo bota

egin zituztela. Horrek guztiak azalpena behar du.

**Izan daiteke suntsitu nahi izana?**

Oso espekulatiboa da hori, ez dugulako daturik, baina azalpen bat izan daiteke errendizioen bat, aldaketaren bat... gertatu izana, eta armak, eman behar- rean, bota izana –sinbolo ikus- garria dira eta–. Baina ez dugu frogarik horrelakorik esateko.

**XII. eta XIV. mendeen artean kokatu daitezke aurkitutakoak.**

Datu gehiegirik ez dugu. Testuingurutik kanpo agertu da material asko, eta han dago gaztelua; erosioa handia izan da, eta ez dago maila askorik indusketak oso adierazgarriak izateko. Baina datu batzuk baditugu: Karbono 14 analisiak XI. mende hasiera eman zuen, eta XIII. mendeko txanpon batzuk ditugu. Gaitza da inor hara igotzea, besterik gabe, 1280ko txanponekin. Beraz, pentsatzekoa da tarte horretan erabili zutela gaztelua. Aintzat hartzekoa da botere ikur izateko altu eraikitako gazteluetan ez zela nahitaezkoa beti militarrek egotea. Batzuetan, beharrezkoa zenean bakarrik okupatzen ziren. Ez dugu pen-

tsatu behar XVI. mendeko jende- dez betetako gazteluetan edo Gasteiz hiribilduan. Astxikiko soldadu taldea txikia izango zen.

**Inor bizi zen arrastorik ez dago.**

Hori esateko, ez. Baina, zerami- ka sigillata zati bat agertu da, eta zenbait armetan egindako analisiak erakutsi dute bizi izan zirela uneren batean. Hala ere, ezin daiteke pentsatu modu jarraian bizi izan zirenik, ez duelako merezi. Zergaren bat kobratzeko pasabidea kontrolatze- ko, defentsarako... funtziorik ez du betetzen. Atxartetik eta Urkiolatik goi-lautadara heltzeko komunikazio bidea kontrolatzea ere gaitz egiten dute klimatolo- giak eta basoek.

**Talaia izan zitekeen?**

Logikak dio baietz. Oso ondo kokatuta dago, eta azalera zabala kontrolatzen du. Baina aintzat hartzekoa da oso datu gutxi du- gula.

**Astxikiren funtzioa, beraz...**

Alturako gaztelu oso umila zela esango nuke, botere ikurra izate- a zen bere funtzioa, militarra baino gehiago.

**Mendebaldeko aldean zegoen dorrea, eta beste tontorreraino 1,5 metroko harresia zuen. Uhar- ka bat ere bazegoen...**

Itxura arraroa du, baina orografiak behartuta horrela izan behar zuen. Ikur edo talaia izateko handia dela esango nuke, mantentze-lan handia eskatzen du –horretarako jendea behar da–. Arraroa da, baina beste konponbiderik ez du. Amildegia- ren partetik ez da behar harresirik, baina mendi magaleko hormak ikusgarria izan behar zuen. Horrek oso militarra ematen du, babesteko, nahiz eta beste datu batzuek kontrako norababidean eraman. Gauza asko dago argitzeko. Testuinguru historikoa zein zen badakigu, baina, ez dakigu zenbaterainoko parte-hartzea izan zuen: datuak falta dira guztia zehazteko.

**‘Gastelatz’ izenagaz ere ezagutzen dute Astxiki Sagastan.**

Horrela da bai. Toponimia oso labankorra izan daiteke, baina oso adierazgarria da.

**Erdi Aroko arkeologiari balio handiagoa emateko prozesua- ren barruan daude gazteluak.**

Bai. Durangaldean ere lan asko egin da. Nekropoliekin hasi ziren, hiribilduekin jarraitu, eta gazteluak etorri dira, azkenik.



# 50. urteurrena

## Astolan

# TOPA GEREDIAGA

**Ekainak 7**  
IGANDEA

### Zaindu

Umeentzat tailerra (6-12 urte)  
10:30

### “Arkeologoa egun batez”

“Arqueólogo por un día”

### Ikertu

Berba-neurtuak  
10:30

### “Zer da lehentasunezkoa?”

“¿Qué es prioritario?”

### Zabaldu

Photowalk  
10:00

### “Kameratik ondareari begira”

“Fotografiando el patrimonio”

Izena ematea komeni da.  
Topalekua, Andra Mariko elizpea.  
Se ruega inscribirse. Punto de encuentro,  
pórtico Santa María.

### Ospatu

13:00

### Esker ON ekitaldia

Acto de agradecimiento

14:00

### Bazkaria eta kantu-erromeria

Comida popular

Prezioa: 20€.  
Umeak (12tik behera): 8€  
Precio: 20€. Menores de 12 años: 8€

### Izen-emateko

Para inscribirse

**Tel: 94 681 80 66**

gerediaga@gerediaga.eus

**Etorri eta ospatu gurekin**

**gerediaga**  
elkartea

[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD**  
Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550 euro hileko.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. 125.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Eremu onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

### ATXONDO

- 3 logela, komun, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

### LEKEITIO

- 3 logela, komun, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komun eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

### ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Eremu egokia.
- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Sarreran arku ederra. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursaila. Txaleta. Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- DURANGO: Txaleta. Lorategia. Igerileku klimatizatua. Ikuspegi ederrak. Informazio pertsonalizatua.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teiltatu berria. Inguru ikusgarria.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ZABALE



- Bizitzin sartzeko moduan. Etxe osoa kanpora begira dago. 99 m2. 4 logela, egongela, sukaldea esekitokiarekin eta komun 2. Balkoia. Garajea. **290.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA

### SAN IGNAZIO



- 90 m2. 50 m2-ko terraza. 3 logela, egongela handia balkoiarekin, sukaldea esekitokiarekin eta komun 2. Garajea eta trastelekua. **290.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

### ASKATASUN



- 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, despentsa eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua. Ikuspegi ederrak. **268.000€.**

### J.A. AGUIRRE



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara handia. **259.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

### ATXONDO



- Txaleto adosatua. 60 m2-ko lorategia, txokoa eta garajea. 5 logela, komun 2 eta bainugela. Erdi berria. **340.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

### ZALDIBAR



- Txaleto familiabakarra 620 m2-ko lursailan. Beheko solairuan 3 logela, estalitako etxabe gardena, 2 autorentzako garajea, trastelekua eta txokoa erdisotoan. Hobekuntza askorekin. Hegoaldera begira. **385.000€.** PREZIO NEGOZIAGARRIA.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
- ARAMOTZ: Halla, 4 logela, sukaldea, egongela eta komun.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komun.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun eta bainugela.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komun.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komun. Garajea.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komun eta despentsarekin.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun.
- KOMENTU KALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komun. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komun eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN INGASIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Lokal komertziala.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun.

### ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komun eta bainugela. Despentsa. Balkoia.
- ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- ZELETABE: Berriztatze.

**Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ERDIALDEAN



- 3 logela, komun, egongela, sukaldea eta despentsa. Igogailua. Leiho berriak. 130.000€.

### DURANGO



- 3 logela, komun, sukalde handia eta egongela. Berogailua. 85.000€.

### ANTSO ESTEGUIZ



- Atikoa. 30 m2-ko terraza. 3 logela, komun eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. 145.000€.

### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela (logela bat terrazarekin), komun 2, egongela eta sukalde terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoa kanpora begira dago. 260.000€.

### F.J. ZUMARRAGA



- 85 m2. 3 logela, komun, egongela terrazarekin eta sukalde handia. Igogailua. Eguzkitsua. Garaje itxia 2 kotxerentzako, aukeran. 120.000€.

### TXALETA



- Estreinatze. 362 m2. 1.200 m2-ko lursaila. 415.000€.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)





# JATETXE GIDA

ÑAM!



## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



## LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,  
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)

ÑAM!



## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)

Entsalada

Patata frijituak

Zatitutako txuleta errea

Postrea

Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)



## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!



## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gaueetan itxita.

ÑAM!



## IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA  
[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.  
Gure upategian egindako sagardoa.  
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi  
personarentzako menua zozkatuko dugu

Elorriko zein dekoratzaileen lana nabarmendu  
dute Casa Decor erakusketan egindako lanarengatik?

Zozketako irabazlea: **Mertxe Soler** zorionak!

ERANTZUNA: [zozketa@anboto.org](mailto:zozketa@anboto.org) helbide elektronikora edo  
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE  
ON!



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 22an, 20:00etan,  
Zornotza Aretoan

## Marcel Gros

Barrea eta imajinazioa osagai nagusi dituen ikuskizuna eskainiko du Marcel Gros pailazoak, Zornotza Aretoan, gaur. 'Minutos' izena du antzezlana, eta, askotariko objektuei bizia emanez, egoera komikoak sortzen ditu Grosek.

## Antzerkia

### :: DURANGO

MAIATZAREN 27an

18:00etan, 'Suegras Bárbaras', San Agustinen.

MAIATZAREN 28an

18:00etan, 'Aquí no paga nadie', San Agustinen.

MAIATZAREN 29an

19:00etan, 'El mesón de los suspiros', San Agustinen.

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 22an

22:00etan, 'Happy End', Arriolan.

### :: IURRETA

MAIATZAREN 22an

17:00etan, 'Antzokiko istorioak', Ibarretxe kultur etxean.

### :: ZORNOTZA

MAIATZAREN 22an

20:00etan, 'Minutos', Zornotza Aretoan.

## Lehiaketa

### :: IURRETA

EKAINAREN 19ra arte

San Migel jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Informazio guztia: [www.iurretakoudala.net](http://www.iurretakoudala.net).

### :: ELORRIO

EKAINAREN 30era arte

Ferixa Nausiko jaien kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren oinarriak: [www.elorrio.net](http://www.elorrio.net).

### :: ZALDIBAR

MAIATZAREN 22ra arte

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Maiatzaren 22ko 15:00ak arte aurkeztu daiteke udaletxean.

## Zinema

### :: BERRIZ

MAIATZAREN 22an, 18:00etan, eta MAIATZAREN 24an, 17:00etan

'La oveja Shaun', Kultur Etxean.

## Kontalaria

### :: DURANGO

MAIATZAREN 22an

19:00etan, Ana Apika, helduentzako ipuin kontaketa saioa, Udal Liburutegian.

### :: IURRETA

MAIATZAREN 22an

17:30ean (3-4 urtekoak) eta 18:00etan (5etik gora), Eider eta Miren kontalarien 'Rodarika', Herri Bibliotekan.

MAIATZAREN 29an

20:00etan, Miguel Ángel Montillaren 'La casa de la memoria', Herri Bibliotekan.

## Ikastaroa

### :: ABADIÑO

EKAINEKO ASTELEHENETAN

17:45etik 20:15era, Clown ikastaroa, Mariano Di Francoren eskutik, Errota kultur etxean. Izen-ematea, [clownlunes@gmail.com](mailto:clownlunes@gmail.com).

## Berbaldia

### :: DURANGO

MAIATZAREN 21ean

19:00etan, 'Los castillos medievales y los poblados fortificados de Álava y Treviño', Juan Antonio Quirosen eskutik, Arte eta Historia Musean.

MAIATZAREN 28an

19:00etan, 'Control del estrés 2: aprender a tolerar las frustraciones', Udal Liburutegian.

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 26an

18:30ean, 'Giza eskubideen aldeko borroka: Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuak', Ahmeed Etanjiren eskutik, Portalekuan.

MAIATZAREN 27an

19:00etan, 'Kulturartekotasuna gurean: integrazioa vs gatazka', Julia Hernandez jarduneko Arartekoaren eskutik, Iturri kultur etxean.

## Aurkezpena

### :: DURANGO

MAIATZAREN 28an

19:00etan, Ahoztar Zelaieta, 'La casta vasca' aurkezten, Hitz liburu dendan.

## Musika

### :: BERRIZ

MAIATZAREN 22an

22:00etan, The Owl Project, Kultur Etxean.

MAIATZAREN 23an

20:00etan, II. Elkartasun Kontzertua, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

MAIATZAREN 22an

19:30ean, Combo kontzertuak, Plateruenean.

MAIATZAREN 23an

22:30ean, Grises + Seirte, Plateruenean.

### :: ELORRIO

MAIATZAREN 29an

22:00etan, Ángel Stanich, Arriolan.

## MAIATZEKO AGENDA

22	<b>Kz GUNEA</b> 16:00 'Write' ikastaroa. <b>IPIIN KONTALARIA</b> - IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA Eider eta Miren: 'Rodarika' 17:30 3-4 urte bitartekoak. 18:00 5 urtetik gorakoak.
23	<b>IURRETAKO KIROL TALDEA</b> - FUTBOLA LARRAKOZELAIAN 17:00 IURRETAKO A - APURTUARTE A.
25	<b>KONTSUMOBIDE</b> FORMACIÓN EN CONSUMO PARA PERSONAS MAYORES 2015 Nagusien etxean 18:00 Gaia: 'Seguridad de las personas mayores'.
26 27 28	<b>IURRETAKO UDALA</b> - IBARRETXE KULTUR ETXEA ERAKUSKETA 11:00-12:30 / 17:30-20:00 Eskulan, pintura eta ingeles ikastaroen erakusketa.
28	<b>AGERRALDIA</b> - OLABURU FRONTOIAN Iurretako kultur tailerren ikasturteari amaiera emateko jaialdia 18:00 Gimnasia, yoga, saloi dantzen, karibeko dantzen eta sabel dantzen agerraldia. Jarraian, denontzako luntxa egongo da.
29	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> HELDUEN IPIIN KONTALARIA 20:00 'La casa de la memoria'. Miguel Angel Montilla Domene.
30	<b>GEU BE ASKONDO EZGAITASUN EGUNA</b> - IURRETA 2015 11:00-21:00 Egun osoko egitaraua.

## LAN ESKAINTZA

Plateruena Kafe Antzokiak kudeatzaile lanpostua eskaintzen du

### ESKATZEN DA:

- Enpresa zuzendaritzan, Ekonomia edo antzekoetan lizentziatua izatea.
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan: antolakuntza, koordinazioa, kontrola, giza baliabideen kudeaketa...

- Izaera aldetik: jarrera konprometitua, izaera planifikatua eta dinamikoa, eta jendaurreko harremanetarako gaitasuna izatea.
- Taldean lan egiteko eta taldea gidatzeko gaitasuna izatea.
- Euskara maila ona izatea ahoz zein idatziz.
- Ofimatika menperatzea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

### BALORATUKO DA:

- Ostalaritza ezagutzea.
- Durangaldeko kultur bizitza ezagutzea.
- Gizarte mugimenduetan eskarmentua izatea.
- Komunikazio tresnak erabiltzen jakitea.
- Irudi eta bideo ediziorako programak menperatzea.

### ESKAINTZEN DA:

- Lan kontratua, jardun osoan.
- Hasteko aurreikusitako data: 2015eko uztaila.

Curriculumak bidaltzeko: [zuzendaritza@plateruena.net](mailto:zuzendaritza@plateruena.net)  
Epea: 2015/06/07

Beharrezkotzat jotzen bada, hautatzeko probak egingo dira.



## :: DURANGO | ZUGAZA

### Poltergeist

- barikua 22: 22:00
- zapatua 23: 19:30/22:30

### Caza al asesino

- domeka 24: 19:00/21:30
- astelehena 25: 18:30/21:00
- martitzena 26: 20:00

### Tom txiki eta ispilu magikoa

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 16:45

### 2. ARETOA

### Poltergeist

- barikua 22: 19:30
- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 16:45/19:00/21:30
- astelehena 25: 18:30/21:00
- martitzena 26: 20:00

### Caza al asesino

- barikua 22: 22:00
- zapatua 23: 19:30/22:30

## :: ELORRIO | ARRIOLA

### El capital humano

- zapatua 23: 22:00
- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:00

## :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

### El viaje más largo

- zapatua 23: 19:30/22:30
- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:15

### Tom txiki eta ispilu magikoa

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 17:00



**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak etxeko poxpolinari 3 urte betetzean! Musu handi bat familiaren partez!



> Zorionak gure erreginari! 6 urtetxo beteko dituzu. Oso ondo pasa zure egunean. Maite zaitugu. Musu potolo asko. Aitaxoren, amaxoren eta Aimarren partez.



> Berrizko banderero txikixek 2 urte beteko dauz 27xen. Tanti auguri Luca!



> **Liherrek** lehengusina **Aialari** diotso: "Igo zaitetz bizikletara, eta Urkiolara joango gara pastelen bila, horrela zure urtebetetzea (martxoaren 12an) eta nirea ospatzeko". Zorionak!



> Zorionak bikote! **Anderrek** 13 urte beteko ditu, 21ean, eta **Julenek** 15, 24an. Ondo pasa zuen urtebetetzea eta batez ere hasten duzuen urte berri hau. Muxuak familiakoen partez.



> Txartel beltza dauka **Albertok**, etxera deitu eta gura beste denbora kabinatik berba egiteko. Zorionak familiaren eta Matienako koadrilaren partez!



> Aiko taldeko dantza maisu bikaina eta musikari paregabe den **Sabinek** 50 urte bete ditu. Zorionak maisu eta urte askoan manten dezazula oraingo ilusiñoa eta dantzazaleok motibatze gaitasuna.



> Juan Orobiogoitiako saskibaloia taldea hirugarren geratu da ligan. Zorionak neskek, segi aurrera! Zuen familien partez.



> **Juanita Erdoizak** 100 urte bete ditu. Durangoko alkateordea Erdoizaren etxean izan da, eta lore sorta bategaz zoriondu du 100 urte bete dituen durangarra.

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> BOTIKAK**

<b>BARIKUA, 22</b> 09:00-09:00
<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>ZAPATUA, 23</b> 09:00-09:00
<b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
09:00-13:30
<b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango
<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango
<b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango
<b>Unamunzaga</b> Muruetatorre 2C - Durango

<b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango
<b>De Diego</b> Intxaurren 22 - Durango
<b>Irigoin</b> Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
<b>Jaio-Olabarrieta</b> Errekakale 6 - Elorrio
<b>Bartolome</b> Gabiola 2 - Berriz
<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>DOMEKA, 24</b> 09:00-09:00
<b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

<b>ASTELEHENA, 25</b> 09:00-09:00
<b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
<b>Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier</b> Txiki Otaegi 3 - Zornotza
<b>MARTITZENA, 26</b> 09:00-09:00
<b>De Diego</b> Intxaurren 22 - Durango
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
<b>Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier</b> Txiki Otaegi 3 - Zornotza

<b>EGUAZTENA, 27</b> 09:00-09:00
<b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
<b>Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier</b> Txiki Otaegi 3 - Zornotza
<b>EGUENA, 28</b> 09:00-09:00
<b>Gaztelumendi</b> J.A. Abasolo 2 - Durango
09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
<b>Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier</b> Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**> EGURALDIA**

**ZAPATUA**  
9° 13°

**IGANDEA**  
11° 15°

**ASTELEHENA**  
11° 15°

**MARTITZENA**  
9° 13°

**ZUREKIN BERRIZ EGINEZ**

**ej pnv**  
HAKORICH BERRIZ EGINEZ

www.eajpnvberriz.eus



# “Etxeek bertan bizi direnei buruz berba egin behar dute”

Dekorazio aldizkariak oso kritika onak egin dizkiote Viterik Casa Decor erakusketarako egindako lanari

**> AKUILUA** Amaia Ugalde Hemezortzi urte daramatza Aitor Viterik Madrilen, dekoratzaile lanetan. Askotariko espazioak diseinatu ditu: etxebizitzak, antzezlanetarako eszenografiak, jatetxeak... Momentu honetan, dekorazio joeren Casa Decor erakustokian dago Viterik eta bere lan-kide Elena Lapeña egindako azken sormen lana: ‘Evoque’.

**Zelakoa da ‘Evoque’?** Pasillo bat da, eta, pasilloa denez, espazio oso zaila. Horregatik, ispiluak erabili ditugu, espazio hori apurtzeko eta handiagoa emateko. Pasilloan zehar, istorio bat kontatu dugu: hasteko, 1920ko hamarkadako *art déco* estiloan inspiratutako tximinia bat egin dugu, eta 1950, 60 eta 70eko hamarkadetako piezekin jarraitu dugu. Amaitzeko, abangoardiako obrak sartu ditugu, Arcon erakutsi diren kritika sozialari buruzko lanak. Hori guztia artisau lanekin; gortinetako patroiak, adibidez, es-

kuz margotuta daude, eta serigrafiaz koloreka inprimatuta. Kalitate bereziko alfonbrak ere ekarri ditugu Atlasetik.

**Beste urte batzuetan ere parte hartu duzu Casa Decorren. Aurtengoak aparteko arrakasta izan du, ezta?** Sorpresa izan da. Casa Decorren askok kontu klasikoagoak egin dituzte, eta Elenak eta biok zerbait berezia egin gura genuen. Nahasketa horrek, berbaz kontatuta, zer edo zer kaotikoa dela ematen du, baina ikusiz gero, ordena eta estilo handia dauka. Hori da *Elle*, *Deco*, *Art&Decoration* eta *Hola* aldizkariak esan dutena; oso ondo idatzi dute gutaz.

**Dekoratzailen bizitza glamouragaz lotu ohi da.** Nirea ez, behintzat. Antolatzen dituzte jaiak-eta, baina ez zaizkit gustatzen. Bestela, lanordu askoko lana da. Proiektu kopurua-  
ren arabera, egu-

nean hamar-hamabi ordu egingen ditugu.

**Tartean eskolak emateko astia ere hartzen duzu.**

Bai, dekorazioagaz lotutako master bitan nabil irakasle. Oso gustura nabil. Oso zorrotza naiz ikasleekin, baina ikasleak oso gustura irteten dira. Ni ere oso pozik; ederra da lanean ikasitakoa ikasleekin partekatzea.

**Madrilek ate asko zabaldu dizkizu. Euskal Herrian zailagoa da dekorazioan lan egitea?**

Madrilera etorri nintzenez, bai; orduan ez zegoen ezer. Denak eta estudioak bai, baina arkitekturakoak; diseinuari ez zitzaion garrantzia ematen. Egoera aldatu da, eta, gaur egun, Bilbon punta-puntako diseinatzaileak daude. Horregatik, Casa Decor erakusketara Bilbon antolatzeke babesle bila dabilta. Ea lortzen duten!

**Zer saltsatan ibiltzen zara gusturen?**

Tabernaren bat diseinatzean, adibidez, asko gozatzen dut. Etxe bat dekoratzea baino gaitzagoa, baina niretzat interesgarriagoa da, gauza berriak probatzeko aukera ematen didalako. Etxe barruan egunero egoten gara, eta, beraz, ezin dituzu oso gauza bitxiak ipini.

**Bezeroekin zelan asmatu?**

Galdera asko egin behar dira, bezeroaren gustuak eta etxeko ohiturak zeintzuk diren ezagutzeko. Psikologia erabili behar izaten da, gauza asko aztertu. Azken batean, leku hori zuzentzat da, ez beste inorentzat. Niri berdin zait gortina berdeak edo horiak jartzea; azken batean zeuk bizi behar duzu bertan, eta etxeak zeuri buruz berba egin behar du.



## LAUHORTZA

**JASONE AGIRRE GARITAONAINDIA**

Kazetaria



### ‘Ze nezesidade...’

Barka diezadatela hizkuntzalari eta garbizaleek erdarakada hau erabiltzearen, baina *ze nezesidade...* lakorik ez dut aurkitu esan gura dudana esateko. Definizio labur bat ematekotan, *ze nezesidade...* da neure buruari esan ohi diodana, inongo etekinik ez, eta buruko mina baino emango ez didaten nahasteetan sartzen naitzenean.

Domekan, ‘ze nezesidadeka’ hasiko naiz, seguru, zinegotzi edo alkate arduraren hartuko duten askorekin

Eta, hortaz, *ze nezesidadeka* epaitu ohi dut inoren jarduna ere. Esaterako, *ze nezesidade* esaten dut bere karrera profesional ederra albo batera utzita, nekeza izango den talde proiektu baten alde lanean hasteko prest dagoen lagunagatik. Edota erakunde bateko ordezkari nagusia izan arren, bertako telefonistaren soldata bera kobratzen duenagatik ere esaten dut *ze nezesidade*.

Kulturgintzan, euskalgintzan, sindikalgintzan, herrigintzan, *gintza* guztietan *ze nezesidade-dun* lagun asko ezagutu izan dut urteotan. Agian ez dira eurak onenak izango, baina interes pertsonalik ez dute, kontrara baino, eta konfiantza ematen didate.

Domekan *ze nezesidadeka* hasiko naiz, seguru, zinegotzi edo alkate arduraren hartuko duten askorekin. “Zertarako horrelako nahastetan sartu, lasai bizi beharreen”, esango dut neure artean. Baina euren mundua ikusteko modu bat da, bizitzeko era bat. Eta guk behar ditugu.

